Urretxuko udala

# UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2015eko URRIAREN 29an EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIA

### Elkartutakoak

**Alkatea**

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak**

Itziar Agirre Berriotxoa , andrea (E.A.J/ P.N.V)
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Oihane Zabaleta Mujika, andrea (E H Bildu)
Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (E H Bildu)
Unai Badiola Urrate jauna ( E H Bildu)
Nerea Altolaguirre Berastegui, andrea (E H Bildu.)
Aitor Otegi Epelde, jauna (EH Bildu)
Fco. Javier Martin Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)
Natividad Nieves Medina andrea (P.S.E.-E.E)
Alberto La Rosa Viedma (Irabazi)

**Idazkaria**

María Jose Begiristain Zabalo andrea

Urretxun bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita bederatzian.

Arratsaldeko zazpirak direnean, aldez aurretik deitutako ohiko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veintinueve de octubre de dos mil quince.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión ordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Urretxuko udala

Jarraian, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak eztabaidatzeari ekin diote

Seguidamente se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el siguiente Orden del Día

| | |
|---|---|
| 1.- Aurreko batzarraldiko akta | 1.- Acta sesión anterior. |
| 2.- Alkatearen ebazpenak | 2.- Decretos de Alcaldía |
| 3.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren aldaketa | 3.- Modificación contrato Servicio Ayuda Domicilio |
| 4.- A.I.R. 1 Gurutze Santu: babestutako etxebizitzak esleitzeko kudeaketari buruzko hirigintza-hitzarmena. | 4.- A.I.R. 1 Gurutze Santu: convenio urban´sitico para la gestión de la adjudicación de la vivienda protegida. |
| 5.- Egonkortsuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena: kreditu-transferentzia kreditu-aldaketa espedientea. | 5.- Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestria, sostenibilidad financiera y regla de gasto: expte modificación créditos modalidad transferencia de créditos |
| 6.- Sasieta Mankomuniteta: Zabor bilketa edukiontzi grisaren bidez egiteko eskera. | 6.- Mancomunidad Sasieta: solicitud de implantación del contenedor gris para la retirada de residuos. |
| 7.- 2016rako Ordenantza Fiskalen aldaketa:<br>a) Udal zergak: kuotak eta tipoak aldatzea; hasierako onarpena.<br>b) Udal tasen aldaketa: hasierako onarpena. | 7.- Modificación Ordenanzas Fiscales para el 2016:<br>a) Impuestos municipales modificación de cuotas y tipos: aprobación inicial.<br>b) Modificación de tasas municipales: aprobación inicial. |
| 8.- Toki mailako biktimen errekonozimendua eta oroigarri jarduketak bultzatzeko aitorpen instituzionala. | 8.- Declaración institucional para el impluso de actuaciones memoriales y de reconocimiento a las víctimas de ámbito local. |
| 9.- Mozioa: fracking | 9.- Moción:fracking |
| 10.- Mozioa: Askapena | 10.- Moción: Askapena |
| 11.- Mozioa: Stop utzarazpenak | 11.- Moción Stop Desahucios |
| 12.- Erregu eta galderak | 12.- Ruegos y preguntas |

**1.- Aurreko batzarraldiko akta.**

**2015eko irailaren 24an** egindako batzarraldiaren akta irakurri ondoren aho batez onartu da.

**1.- Acta sesión anterior.**

Dada lectura al acta de las sesión celebrada el día **24 de septiembre de 2015**, es aprobada por unanimidad.

**2.- Alkatearen ebazpenak**

Irailean emandako dekretuen berri eman da, hain zuzen ere ondorengo hauek

**IRAILA**

ADMINISTRAZIO OROKORRA

2015-09-01 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-01 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-02 Biztanleen Udal erroldan baja I.T

2015-09-02 Biztanleen Udal erroldan baja A.S .

2015-09-02 Biztanleen Udal erroldan baja R.M.V

2015-09-02 Biztanleen Udal erroldan baja V.P.M. eta J.A.P.J

2015-09-02 Biztanleen Udal erroldan baja N.E.H

2015-09-02 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-02 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-03 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-03 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

**2.- Decretos de Alcaldía**

Se da cuenta de la relación de Decretos dictados durante el mes de septiembre que se relacionan a continuación:

**SEPTIEMBRE**

ADMINISTRACION GENERAL

01-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

01-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

02-09-2015 Baja de oficio I.T

02-09-2015 Baja de oficio A.S

02-09-2015 Baja de oficio R.M.V

02-09-2015 Baja de oficio V.PM. y J.A.P.J

02-09-2015 Baja de oficio N.E.H

02-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

02-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

03-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

03-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

2015-09-03 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-03 Biztanleen Udal erroldan baja M.R eta L.E.R

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-04 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea M.J.G.GA

2015-09-07 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-07 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-07 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-08 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-08 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

03-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

03-09-2015 Baja de oficio M.R y L.E.R

04-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

04-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

04-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

04-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

04-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

04-09-2015 M.J.G.G tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

07-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

07-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

07-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

08-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

08-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

| | |
|---|---|
| 2015-09-09 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 09-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-09 Ezkontza zibila baimena emateko eskuordetza. I.E.A | 09-09-2015 Delegación autorización de matrimonio civil. I.E.A |
| 2015-09-10 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 10-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-10 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 10-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-10 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 10-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea L.M.P.G eta M.I.O.P | 11-09-2015 L.M.P.G y M.I.O.P tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes |
| 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 11-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 11-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 11-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 11-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-14 2015-09-11 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 14-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |
| 2015-09-14 Gorpuzkiak ateratzeko baimena. X.E.M | 14-09-2015 Autorización exhumación restos. X.E.M |
| 2015-09-15 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera | 15-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes |

Urretxuko udala

2015-09-16 230/2015 prozedura arrunterako letratu eta prokuradorearen izendapena.

2015-09-16 185/2015 prozedura arrunterako letratuaren eta prokuradorearen izendapena

2015-09-16 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-16 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea C.B.V.M, M.V.A.J eta J.C.B

2015-09-16 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-18 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea M.A.A eta A.D.A.P

2015-09-18 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-22 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea M.AI.L

2015-09-22 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-22 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-22 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

16-09-2015 Designación de letrada y procuradora en proced. Ordinanrio 230/2015

16-09-2015 Designación de letrada y procurador para procedimeinto ordinario 185/2015

16-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

16-09-2015 C.B.V.M, M.V.A.J y J.C.B tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

16-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

18-09-2015 M.A.A y A.D.A.P tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

18-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

22-09-2015 M.A.I.L tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

22-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

22-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

22-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

Urretxuko udala

2015-09-22 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-24 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-24 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-24 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-25 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea G.E.C, D.S.A.P, M.D.A, M.M.C.M, P.T.A.A y S.E.V L

2015-09-25 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-28 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-28 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

2015-09-29 Biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko espedientearen tramitea etetea M.A.A eta A.D.A.P

2015-09-30 Biztanleen Udal erroldan baja J.E.G.B

2015-09-30 Biztanleen Udal erroldan baja G.S eta L.S

2015-09-30 Biztanleen Udal erroldan bajaT.J.M

2015-09-30 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

22-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

24-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

24-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

24-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

25-09-2015 G.E.C, D.S.A.P, M.D.A, M.M.C.M, P.T.A.A y S.E.V tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

25-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

28-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

28-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

29-09-2015 M.A.A y A.D.A.P Dejar en suspenso la tramitación expediente baja oficio padrón municipal habitantes

30-09-2015 Baja de oficio J.E.G.B

30-09-2015 Baja de oficio G.S y L.S

30-09-2015 Baja de oficio T.J.M

30-09-2015 Solicitud inscripción padrón

2015-09-30 Biztanleen udal erroldan erroldatzeko eskaera

GIZARTE EKIMENA

2015-09-09 Z.E.P. ezintasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartela ematea.

2015-09-29 K.Lri G.L.L ematea

2015-09-30 N.R. G.L.L ematea

2015-09-30 S.L. G.L.L ematea

OGASUNA

2015-09-03 Faktura zerrenda onartzea 36.665,03

2015-07-03 Ikerlora faktura onartzea 10.461,45

2015-09-08 Arreta Asistencial: Eguneko Zentruko eta Etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokion faktura onartzea 52.663,20

2015-09-08 I.M.S Arkitektoaren faktura onartzea. 1.821,53

2015-09-08 UTE URRETXU LV. Kale garbiketa zerbitzuari dagokion faktura onartzea. 27.915,89

2015-09-08 Ikerlora faktura onartzea 10.461,45

municipal habitantes

30-09-2015 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes

BIENESTAR SOCIAL

09-09-2015 Z.E.P. concesión tarjeta estacionamiento para personas con discapacidad

29-09-2015 K.L. Conceder A.E.S

30-09-2015 N.R Conceder A.E.S

30-09-2015 S.L. Conceder A.E.S

HACIENDA

03-09-2015 Aprobación relación de facturas. 34.665,03

03-07-2015 Ikerlora: aprobación factura jardinería 10.461,45

08-09-2015 Arreta Asistencial: Aprobación factura servicio Centro día y Asistencia domiciliaria 52.663,20

08-09-2015 I.M.S Aprobación factura arquitecto. 1.821,53

08-09-2015 UTE URRETXU LV. Aprobación factura limpieza viaria. 27.915,89

08-09-2015 Ikerlora: aprobación factura jardinería 10.461,45

2015-09-08 Piscinas Pressing S.L. Igerilekuko pitzadurak konpondu eta araztaile balbula aldatzeko lanei dagokien faktura onartzea. 4.208,15

2015-09-08 Faktura zerrenda onartzea 34.665,03

2015-09-08 Kelsalim Zerbitzuak S.L. Udal eraikinen garbiketari dagokion faktura onartzea. 23.500

2015-09-11 ATE informatika. Hardware eta softwarearen mantenuari dagokion faktura onartzea. 1.621,80

2015-09-11 ATE informatika. Hardware eta softwarearen mantenuari dagokion faktura onartzea. 1.621,80

2015-09-11 Faktura zerrenda onartzea 28.078,60

2015-09-15 Karrika Gizarte Zerbitzuak Gazte bidean kudeaketa zerbitzuari dagokion faktura onartzea 3.772,85

2015-09-14 Jaso Kirol Zerbitzuak, igerilekuko zerbitzuari dagokion faktura onartzea 17.696,25 €

2015-09-14 Jaso Kirol Zerbitzuak, S.L. kiroldegian eskeintzen diren jarduerei dagokion faktura onartzea 747,63

2015-09-14 Jaso Kirol Zerbitzuak, S.L. aldiri kiroldegiko harrera zerbitzuari dagokion faktura onartzea 2.993,47

2015-09-14 Comercial Bulegoak. Fotokopiagailu eta inprimagailuen

08-09-2015 Piscinas Pressing S.L. Aprobación factura reparación de grietas y colocación de válvula en piscina municipal. 4.208,15

08-09-2015 Aprobación relación de facturas. 34.665,03

09-09-2015 Kelsalim Zerbitzuak S.L. Aprobación limpieza de edificios municipales. 23.500

11-09-2015 ATE informática. Aprobación factura mantenimiento hardware y software. 1.621,80

11-09-2015 ATE informática. Aprobación factura mantenimiento hardware y software. 1.621,80

11-09-2015 Aprobación relación de facturas. 28.078,60

14-09-2015 Karrika Gizarte Zerbitzuak, aprobación factura Gaztebidean 3.772,85

14-09-2015 Jaso Kirol Zerbitzuak: Aprobación factura servicio piscinas municipales 17.696,25

14-09-2015 Jaso Kirol Zerbitzuak, S:l. aprobación factura actividades polideportivo 747,63

14-09-2015 Jaso Kirol Zerbitzuak, S.L. aprobación factura servicio de recepción u trabajos mantenimiento Polideportivo 2.993,47

14-09-2015 Comercial Bulegoak. Aprobación factura mantenimiento de

| | |
|---|---|
| mantenuari dagokion faktura onartzea. 552,14 | equipos y de impresoras multifunción. 552,15 |
| 2015-09-16 ITMaren kuotaren parte proportzionala bueltatzea onartzea | 16-09-2015 Aprobación devolución parte proporcional cuota IVTM |
| 2015-09-16 J.B.M.V. T.M.I.G.Zn hobaria onartzea | 16-09-2015 J.B.M.V Aprobación bonificación I.V.T.M |
| 2015-09-16 I.A.A. T.M.I.G.Zn salbuespena onartzea | 16-09-2015 I.A.A. Aprobación exención I.V.T.M |
| 2015-09-16 ITMaren kuotaren parte proportzionala bueltatzea onartzea | 16-09-2015 Aprobación devolución parte proporcional cuota IVTM |
| 2015-09-16 Faktura zerrenda onartzea 54.441,65 | 18-09-2015 Aprobación relación de facturas. 54.441,65 |
| 2015-09-22 Grupo One. Abalaren itzulketa | 22-09-2015 Grupo One. Devolución aval |
| 2015-09-24 Gesmunpal. Udal zergak ikuiskatzeko laguntzari dagokion faktura onartzea 1.965,20 | 24-09-2015 Gesmunpal. Aprobación factura servicio de recaudación ejecutiva. 1.965,20 |
| 2015-09-25 Gesmunpal. Udal zergak ikuiskatzeko laguntzari dagokion faktura onartzea 4,74 | 25-09-2015 Gesmunpal. Aprobación factura servicio de recaudación voluntaria. 4,74 |
| 2015-09-29 Ikerlora faktura onartzea 246,84 | 29-09-2015 Ikerlora: aprobación factura jardinería 246,84 |
| 2015-09-29 Kelsalim Zerbitzuak S.L. Udal eraikinen garbiketari dagokion faktura onartzea. 23.500 | 29-09-2015 Kelsalim Zerbitzuak S.L. Aprobación limpieza de edificios municipales. 23.500 |
| 2015-09-29 Faktura zerrenda onartzea 14.381,63 | 29-09-2015 Aprobación relación de facturas. 14.381,63 |

OBRAK ETA ZERBITZUAK, MUGIKORTASUNA ETA TRAFIKOA

OBRAS Y SERVICIOS, MOVILIDAD Y TRAFICO

OBRAK ETA ZERBITZUAK

OBRAS Y SERVICIOS

| | |
|---|---|
| 2015-09-03 Obra txikia egiteko baimena J.A.C.L. | 03-09-2015 Licencia de obra menor. J.A.C.L |
| 2015-09-03 I.M.S. gainzuriko arrapala egiteko proiektu teknikoaren idazketa lanak esleitzea | 03-09-2015 I.M.S. Adjudicación redacción del proyecto técnico de rampa de Gainzuri |
| 2015-09-08 Obra txikia egiteko baimena. Areizaga 10-3ªB | 08-09-2015 Licencia de obra menor. Areizaga 10-3ºB |
| 2015-09-08 Obra txikia egiteko baimena. Labeaga 3 | 08-09-2015 Licencia de obra menor. Labeaga 3 |
| 2015-09-08 Ulahi. Santa Barbara igogailuko kalteak konpontzeko lanak esleitzea | 08-09-2015 Ulahi. Adjudicación reparación de daños ascensor de Santa Barbara. |
| 2015-09-15 Kuadrilen lokala egokitzeko komunikatuz. Labeaga 3 | 15-09-2015 Comunicación adecuación local de cuadrillas. Labeaga 3 |
| 2015-09-15 Obra txikia egiteko baimena. Areizaga 6-1ª | 15-09-2015 Licencia de obra menor. Areizaga 6-1ª |
| 2015-09-15 Obra txikia egiteko baimena. Labeaga 41-5D | 15-09-2015 Licencia de obra menor. Labeaga 41-5D |
| 2015-09-15 Obra txikia egiteko baimena. Labeaga 46-4D | 17-09-2015 Licencia de obra menor. Labeaga 46-4D |
| 2015-09-17 Telefónica S.A. Ohartarazpena kutxatilak ez baditu konpontzen Udalak egingo duela kostua bere kontura izanik | 17-09-2015 Telefónica S.A. Apercibimiento indicando que si no reparan las para reparación de arquetas. |
| 2015-09-22 Obra txikia egiteko baimena. Barrenkale 1-1Ezk | 22-09-2015 Licencia de obra menor. Barrenkale 1-1 Izd. |
| 2015-09-23 Oleta Berri S.L. Kontsumo baxuko 4 lanpara eta mugimendua nabaritzeko gailuen hornidura esleitzea. | 23-09-2015 Oleta Berri S.L. Adjudicación suministro de 4 lámparas de bajo consumo y detectores de movimiento. |
| 2015-09-24 Tximela. S.A. Kultur etxeko teilatua konpotzeko plataforma | 24-09-2015 Tximela S.A. Adjudicación de alquiler de plataforma telescópica |

teleskopikoaren alokairua esleitzea.

para reparar tejado de la casa Cultura..

2015-09-25 Ulahi S.A.U. Gernikako Arbolako igogailuaren ateko pieza aldatzeko lanak esleitzea.

25-09-2015 Ulahi S.A.U. Adjudicación sustitución pieza en puerta de embarque del ascensor de Gernikako Arbola.

2015-10-28 Obra txikia egiteko baimena. Labeaga 32-1D

28-10-2015 Licencia de obra menor. Labeaga 32-1D

2015-10-28 Obra txikia egiteko baimena. Barrenkale 2-4D

28-10-2015 Licencia de obra menor. Barrenkale 2-4D

2015-10-09 Obra txikia egiteko baimena. Areizaga 8-4ª

29-10-2015 Licencia de obra menor. Areizaga 8-4ª

2015-10-30 Obra egiteko baimena. Labeaga 30-behea

30-10-2015 Licencia de obra. Labeaga 30-bajo

BIDE PUBLIKOEN OKUPAZIOA

OCUPACION VIA PUBLICA

2015-09-01 M.S.P Taloak saltzeko baimena

01-09-2015 M.S.P Autorización venta de Talos.

2015-09-01 M.J.G.V. bokadiloak eta patatak saltzeko baimena

01-09-2015 M.J.G.V Autorización venta de bocadillos y patatas

2015-09-01 S.M.A. bokadiloak eta patatak saltzeko baimena

01-09-2015 S.M.A Autorización venta de bocadillos y patatas.

2015-09-01 T.P.P bokadiloak eta patatak saltzeko baimena

01-09-2015 T.P.P Autorización venta de bocadillos y patatas

2015-09-04 X.L.L. 3 aparkaleku okupatzeko baimena ematea.

04-09-2015 X.L.L. Autorización ocupación de 3 aparcamientos.

2015-09-04 Kontenedore bat jartzeko baimena ematea. Barrenkale 5

04-09-2015 Autorización colocación de contenedor. Barrenkale 5

2015-09-07 Iparragirre plazara autobusak sartzeko eskaria ez onartzea. M.S.U

07-09-2015 Desestimar solicitud de entrada de autobuses en Plaza Iparragirre. M.S.U

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 7

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 7

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 13

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 13

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 9

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 9

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 8 bajo

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 8 bajo

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 8

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 8

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin auzoa 7

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 7

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Santa Barbara1

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Santa Barbara 1

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. San Martin 10

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº San Martin 10

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Pagoeta auzoa 2

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Pagoeta auzoa 2

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Nekolalde 9

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Nekolalde 9

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Nekolalde 7

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Nekolalde 7

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Jauregi 1

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Jauregi 1

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Nekolalde 3-5-7

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Nekolalde 3-5-7

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Mugitegi 39

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Mugitegi 39

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 62

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 62

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 40-42

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 30-32

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 2-Nekolalde 1

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 23

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Labeaga 21

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Kalerrota z/g

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Areizaga 14-16-18-20

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Jauregi Karbakas

2015-09-08 IBIA jartzeko baimena. Jauregi 5

2015-09-23 Mahaiak jartzeko baimena. Zona Zero

2015-09-24 Terraza jartzeko baimena ematea. Karol Pizza

2015-09-29 Bide publikoa okupatzeko baimena. Labeaga 41

2015-09-30 Bide publikoa okupatzeko baimena. Labeaga 3

TRAFIKOA

2015-09-02 Seinalea kentzeko eskera ez onartzea. Barrenkale 13-15-17

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 40-42

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 30-32

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 2-Nekolalde 1

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 23

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Labeaga 21

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Kalerrota z/g

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Areizaga 14-16-18-20

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Jauregi Karbakas

08-09-2015 Autorización de Vado. Bº Jauregi 5

23-09-2015 Autorización instalación mesas. Zona Zero

24-09-2015 Autorización instalación de terraza. Karol Pizza

29-09-2015 Autorización ocupación de vía pública. Labeaga 41

30-09-2015 Autorización ocupación de vía pública. Labeaga 3

TRAFICO

02-09-2015 Denegar solicitud de retirada de señal. Barrenkale 13-15-17

2015-09-18 I.L.A Trafiko arau hausteengatiko alegazioa onartzea

2015-09-18 LEASE PLAN SERVICIOS SA Trafiko arau hausteengatiko alegazioa onartzea

INGURUMENA

2015-09-18 Erreka egunaren gastuak onartzea

2015-09-30 zigor espedientearen irekiera. AVENIDA

LANDA GARAPENA

———

SUSTAPEN SOZIOKULTURALA

KULTURA

2015-09-14 Lizeoko soinketa gela erabiltzeko baimena. N.A

2015-09-27 2015eko Santa Anastasia jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea

KIROLAK

2015-09-11 Aldirin pankarta jartzeko baimena ematea. Goierri K.E Zikloturismo

2015-09-18 Euskal kopa Txapelketa antolatzeko Aldiri kiroldegia erabiltzeko baimena ematea.

18-09-2015 I.L.A Estimación alegaciones por infracción de tráfico

18-09-2015 LEASE PLAN SERVICIOS SA Estimación alegaciones por infracción de tráfico

MEDIO AMBIENTE

18-09-2015 Aprobación gastos del Erreka Eguna

30-09-2015 inicio de expediente sancionador. AVENIDA

DESARROLLO RURAL

———

PROMOCION SOCIOCULTURAL

CULTURA

14-09-2015 Autorización uso sala de gimnasio del Liceo. N.A

27-09-2015 Aprobación contenido y presupuesto fiestas Santa Anastasia 2015

DEPORTES

11-09-2015 Autorización para poner pancarta en Aldiri. Goierri K.E Zikloturismo

18-09-2015 Autorización uso polideportivo Aldiri para organizar el campeonato Euskal Kopa.

Urretxuko udala

Goierri K.E. Saskibaloia

2015-09-25 Capoeira ikastaroak emateko Lizeoko soinketa gela erabiltzeko baimena. P.S.S

EUSKARA

UDAL PLANEAMENTUA, PARTE-HARTZE, HEZKUNTZA POLITIKA

2015-09-07 Foru Aldundiari proposatzea kontuhatzaile lanpostua hutsik uztea.

2015-09-08 2016rako jai eguna irailaren 19a proposatzea.

PLANEAMENTUA, HIRIGINTZA

2015-09-09 A.I.R. 16 Gainzabal Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onarpena ematea.

2015-09-15 A.I.R. 13 Ormazabal etxea eremuko kontzertazio Batzordea onartzea

2015-09-15 M.L.U.U Lur sailak banantzeko baimena.

Goierri K.E. Saskibaloia

25-09-2015 Autorización uso de gimnasio del Liceo para clases de Capoeira. P.S.S

EUSKERA

PLANEAMIENTO MUNICIPAL, PARTICIPACIÓN, POLÍTICA LINGUÍSTICA

07-09-2015 Proponer a la Diputación declarar desierto la provisión de plaza de interventor.

08-09-2015 Proponer como día festivo del 2016 el día 19 de septiembre

PLANEAMIENTO, URBANISMO

09-09-2015 Aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanizadora de A.I.R. 16 Gainzabal

15-09-2015 Aprobación constitución de la Junta de Concertación del A.I.R. 13 Ormazabal Etxea.

23-09-2015 M.L.U.U. Concesión segregación

Urretxuko udala

**3.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren aldaketa**

Udaleko Osoko Bilkuran, 2012ko irailaren 27an egindako bileran, ARRETA ASISTENCIAL S.L enpresari esleitu zitzaizkion Eguneko Zentroaren zerbitzua eta Etxeko Laguntza zerbitzua, prozedura irekiaren bidez.

2012ko ekainaren 28ko Udaleko Osoko Bilkuran onartutako Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Pleguak bete behar ditu kontratu horrek, eta baita esleipendunak aurkeztutako proposamena ere.

2012ko urriaren 1ean jarri zen indarrean kontratua, bi urterako, eta gehienez lau urtez luzatu ahal zitekeen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak, Eguneko Zentroaren prezioa udalari finantzatzen dion erakunde horrek, Eguneko Zentroko lanegunen tarifa 2015eko ekitaldian % 1,95 igotzea ezarri du irizpide gisa, langileen soldata-masan eragin dezan.

Gizarte Ekintza eta Osasuna udal-batzordeak, 2015eko urriaren 7an egindako bileran, etxeko laguntza zerbitzuan ere irizpide bera ezartzea proposatu zuen, langileen artean bereizkeriarik ez egiteko, eta Arreta Asistencial S.L. enpresari,

**3.- Modificación contrato Servicio Ayuda Domicilio**

Resultando que por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de septiembre de 2012 se procedió a la adjudicación, mediante procedimiento abierto, a ARRETA ASISTENCIAL S.L de la prestación de los servicios de Centro de Día y de Ayuda Domiciliaria.

Resultando que el referido contrato está sujeto a los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas aprobados por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el día 28 de junio de 2012 y a la propuesta presentada por el adjudicatario.

Resultando que el plazo de dicho contrato se inició el 1 de octubre de 2012 teniendo una duración de dos años, prorrogable hasta un máximo de cuatro años

Resultando que por parte del Departamento de Política Social de Diputación Foral de Gipuzkoa, ente que financia al Ayuntamiento el precio del Centro de Día, en el presente ejercicio 2015 se ha establecido como criterio el incremento del 1,95% de la tarifa de días laborables del Centro de Día para su repercusión en la masa salarial del personal.

Considerando que la Comisión municipal de Acción Social y Sanidad, en su reunión de 7 de octubre de 2015, ha propuesto aplicar el mismo criterio en el servicio de ayuda a domicilio (SAD), al objeto de no hacer

hau da, esleipendunari, orduko 18,77 € (BEZ barne) ordaintzea proposatu zuen.

Esleipendunari ahoz adierazi ondoren, hark proposamenarekin ados dagoela esan du.

Idazkariak eta ikuskatzaileak egindako txostenak kontuan hartuta, gaiari buruzko bozketa egin da, eta, aho batez, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Arreta Asistencial S.L. enpresarekin sinatutako kontratua aldatzeko baimena ematea, etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketarako, era honetara:
Etxeko laguntza zerbitzuaren lanegunen prezioa honako hau izango da: 18,77 €/ordu (BEZ barne).

**Bigarren.-** Urteroko **1.514,76 €-ko** (BEZ barne) gastu osagarria baimentzea, indarrean dagoen Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailaren kontura.

**<u>4.- A.I.R. 1 Gurutze Santu: babestutako etxebizitzak esleitzeko kudeaketari buruzko hirigintza-hitzarmena..</u>**
Zubillaga jaunak, Hiri Plangintza eta Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, hitzarmen hori aurreko legealdikoa dela azaldu du; 2015eko maiatzaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, eta sinatu aurretik bilkurak onartzea ezinbestekoa dela adierazi du.

diferencias entre el personal, proponiendo un precio a de 18,77 € / hora (IVA incluido) abonar al adjudicatario, Arreta Asistencial S.L.

Resultando que otorgada audiencia verbal al contratista, este ha mostrado verbalmente conformidad con la propuesta.

Considerando los informes emitidos por la Secretario y el Interventor , se somete el asunto a votación, y por unanimidad, se acuerda :

**Primero.-** Autorizar la modificaciòn de contrato suscrito con Arreta Asistencial , S.L. para la gestión del servicio de ayuda domicliaria (SAD) , en el siguiente tenor:
El precio del servicio de ayuda domiciliaria de los días laborables se establece en 18,77 €/hora (IVA incluido).

**Segundo.-** Autorizar el gasto complementario de **1.514,76 €** anual, IVA incluido con cargo a la partida presupuestaria correspondiente del Presupuesto General en vigor

**<u>4.- A.I.R. 1 Gurutze Santu: convenio urbanístico para la gestión de la adjudicación de la vivienda protegida.</u>**
El Sr. Zubillaga, presidente de la Comisión de planeamiento y gestión urbanística expone que este convenio viene de la anterior legislatura, que fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 7 de mayo de 2015, y que previo a su firma es precisa la

Urretxuko udala

Ondoren, proposatu den hitzarmenaren alderdi esanguratsuenak azaldu ditu:

Hitzarmeneko xedapenak kontuan hartuta, udalaren ardurakoak dira honako alderdi hauek:

Hirigintza-txosten hauek izapidetzea:

- HJP (aurreko alkate andreak ebazpen bidez jada onartua).
- Eremuko 3 egikaritze-unitateen kontzertazio bidezko hitzarmenak; horietatik, U.E. 1.2 egikaritze-unitateari dagokiona izapidetzen ari dira, eta 44 etxebizitza libre eraikitzea aurreikusten da.
- 3 egikaritze-unitateen birpartzelazio-proiektuak; horietatik, U.E. 1.2 egikaritze-unitateari dagokiona aurkeztuta dago, eta teknikariek berorri buruzko informazioa emateko fasean dago.
- Hirigintza-proiektua; aurkeztea falta da, izapidetu ahal izateko.
- Beharrezkoak diren xehetasun-azterketak: aurreko Plangintza Batzordean udaleko arkitektoak azaldu zuena gogoratuz, datozen egunetan aurkeztuko da atiko edo azken solairuak atzeratzeko aukera emango duen xehetasun-azterketa.

Udalak, hitzarmena sinatu izanaren ondorioz, 1.1 egikaritze-unitatean egingo diren etxebizitza babestuen esleipenaren kudeaketa bere gain hartuko duela esanez jarraitu du, eta, horretarako, udalak:

aprobación de este Pleno.

Seguidamente expone los puntos más significativos del convenio cuya aprobación se propone:

Las estipulaciones del convenio comprometen al ayuntamiento en los siguientes aspectos:

A tramitar los siguientes documentos urbanisticos:

- El P.A.U. (que ya fue aprobado por resolucion de la anterior sra. alcalde).
- Los convenios de concertacion de las 3 unidades de ejecución del ámbito, de los cuales se está tramitando el correspondiente a la U.E. 1.2, donde se preve la construcción de 44 viviendas libres.
- Los proyectos de reparcelación de las 3 unidades de ejecución, de los cuales está presentado, y en fase de ser informado por los técnicos, el correspondiente a la U.E. 1.2.
- El proyecto urbanización, que está pendiente de ser presentado para su tramitación.
- Los estudios de detalle que resulten necesarios: que tal y como expuso el arquitecto municipal en la pasada comisión de planeamiento, en breves fechas será presentado el estudio de detalle que posibilite el retranqueo de las plantas ático.

Sigue diciendo que el ayuntamiento, como consecuencia de la firma del convenio, asumirá la gestión de la adjudicación de las viviendas protegidas que se ejecuten en la unidad de ejecución 1.1. , y para ello el ayuntamiento:

- Etxebizitza horiek esleitzeko aukera duten eskatzaileen zerrenda egin eta kudeatu beharko du.

- Eskatutako baldintzak egiaztatu ondoren, lehentasun-ordena ezarriko du esleipenean, eta etxebizitza kopurua baino eskatzaile gehiago izanez gero, zozketa egingo da notarioaren aurrean.

- Etxebizitza babestuak eraikitzeko, EIOZren % 50eko gehieneko hobaria aplikatuko du, udaleko ordenantzetan ezarritakoarekin bat etorrita.

- Gainera, etxebizitza babestu horiek utziz edota alokatuz gero, uzte eta alokatze horiek ikuskatuko ditu; kasu horietan, udalaren berariazko baimena behar izango da, eta udalak lehentasunez bereganatzeko eskubidea izango du.

Hitzarmenaren eraginkortasuna, udalak izapidetu behar dituen txostenak onartzearen mende egoteaz gain, sustatuko den lehenengo blokean 16 etxebizitza esleitzearen eta saltzearen mende dago; lehenengo bloke hori gaur egungo hiri-bilbetik gertuen dagoena izango da, hau da, Elizaldera joateko bidearen ondoan dagoena.

Azkenik, azaldu du, proposatutako hitzarmen hori onartu eta sinatu ondoren, udalak:

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailari aurkeztu beharko diola etxebizitza babestuen esleipena kudeatzeko eskaria, eta eskari hori ezingo dela egin egikaritze-unitatearen birpartzelazioa

- Deberá elaborar y gestionar una relacion de solicitantes que opten a la adjudicación de las viviendas.

- Previa comprobación de los requisitos exigidos, establecerá el orden de preferencia en la adjudicación. y en el supuesto de que el número de solicitantes excediera del numero de viviendas, se procederá al sorteo ante notario.

- Aplicará la máxima bonificación del 50% del ICIO para la construcción de las viviendas protegidas, tal y como establece la ordenanza municipal.

- Y además ejercerá la tutela o supervisión referida a cualquier cesión o arrendamiento que pudiera producirse sobre dichas viviendas protegidas, que deberá contar con la autorización expresa del ayuntamiento, reservándose éste el derecho de adquisición preferente

La eficacia del convenio está supeditada, además de a la aprobación de los documentos que debe tramitar el ayuntamiento, a la adjudicación y venta de 16 viviendas protegidas en el primer bloque a promover, que será el situado más cerca de la actual trama urbana, esto es, junto al vial de acceso a Elizalde.

Por último indica que una vez sea aprobado y firmado el convenio propuesto, el ayuntamiento:

- tendrá que presentar ante el Departamento de Vivienda de Gobierno Vasco, solicitud para gestionar la adjudicación de las viviendas protegidas. y que esta

onartu arte.

- Gainera, esleipena arautzeko oinarriak landu eta onartu beharko dituela.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, La Rosa jaunak (Irabazi) esan du, bere ustez, herrian zenbat etxebizitza hutsik dauden aztertu behar dela lehendabizi, horrela, eraikuntza-lan bat gutxiago egin beharko litzatekeelako; horregatik, proposatu den hitzarmenaren aurkako botoa emango dutela azaldu du, eraikin berrien beharrik ez dagoela ulertzen dutelako.

Zabaleta andreak (EH Bildu) azaldu du gai hau Hiri Plangintza eta Kudeaketa Batzordean landu dela, eta aurreko legealdian jarri zela abian. Denbora asko igaro ondoren, aurrerapauso bat ikusi duela eta pozik dagoela azaldu du, aurrez abian jarritako lan bati babesa eman zaiolako; etxebizitza babestuak izatea oso ongi iruditzen zaiela ere azpimarratu du.

Alkate jaunak esan du, egiatan, gai hori aurreko legealditik datorrela, eta jarduketa-eremu hori abian jartzeak hein batean ikastolaren egoera desblokeatzeko aukera ematen duela.

Eztabaida amaituta, eta Hiri Plangintza eta Kudeaketa Batzordearen aldeko irizpena kontuan hartuta, honako hau erabaki da, alkate jaunaren eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV, Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH BIldu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu), Otegi

solicitud no podrá realizarse en tanto la reparcelación de la unidad de ejecución no esté aprobada.

- además deberá elaborar y aprobar unas bases reguladoras de la adjudicación.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. La Rosa (Irabazi), expone que , a su juicio, en primer lugar hay que estudiar cuántas viviendas vacias a¡hay en el municipio, dado que así se ahorraría una construcción, y es por ello que votarán en contra del convenio propuesta, por entender además que no hay necesidad de nuevas edificaciones.

La Sra. Zabaleta (EH BIldu) expone que este es un asunto que se ha seguido en el seno de la Comisión de planeamiento y gestión urbanística, y que se inició en la anterior legislatura. Opina que, después de largo tiempo, parece que se observa un pequeño avance, y se alegra porque además se da respaldo a un trabajo iniciado anteriormene, todo ello sin olvidar que les parece muya bueno dotarse de vivienda protegida.

El Sr. Alcalde dice que, efectivamente, este asunto viene de la anterior legislatura, y recuerda que con esta puesta en marcha de este ámbito de actuación se está posibilitando que se desbloquee, en parte, la situación de la ikastola.

Finalizado el debate, y considerando el dictamen favorable de la Comisión de planeamiento y gestión urbanística, con los votos favorable del Sr. Alcalde y de los ediles Sr@s Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV, Fidalgo (EAJ-

(EH Bildu), Martín (PSE-EE) eta Nieves (PSE-EE) zinegotzien aldeko botoarekin {12 boto alde}, eta La Rosa jaunaren (Irabazi) aurkako botoarekin {boto bakarra aurka}:

**Lehenengo.-** Hirigintza egikaritzeko hitzarmena onartzea, A.I.R.1 Gurutze Santu eremuan egingo diren etxebizitza babestuen esleipena kudeatzeko.

**Bigarren.-** Alkate jaunari ahalmena ematea, xede horretarako beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.

**5.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontu-hartzailetzaren txostena: kreditu-transferentzia kreditu-aldaketa espedientea.**

Alkate jaunak kontu-hartzaile jaunari hitza eman dio, eta honek transferentzi kreditu aldaketaren espedienteari dagozkion aurrekontu-egonkortasuna, jasangariritasun finantzieroa eta gastuaren erregela betetzeari buruzko txostenaren berri eman du:

Aurrekontuaren egonkortasuna: aurrekontuaren onarpenaren espedienteak 127.520,32 €ko defizita du, eta geroago doikuntza eskatuko duen garrantzi bereziko jaraduerarik egiterik ikusten ez denez, 1. eta 7. atalen arteko diferentzia gisa burutu dira. 2015. urterako aurreikusitako defizita zero da. Ondorioz, aurrekontuaren egonkortasunaren helburua ez da betetzen.

PNV), Zabaleta (EH BIldu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre EH Bildu), Otegti (EH Bildu), Martín (PSE-EE), y Nieves (PSE-EE), {12 votos a favor}, y el voto en contra del Sr. La Rosa (Irabazi) {1 voto en contra}, se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el convenio urbanísitico de ejecución para la gestión de la adjudicación de la vivienda protegida a ejecutars en el A.I.R. 1 Gurutze Santu.

**Segundo.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

**5.- Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestria, sostenibilidad financiera y regla de gasto: expte modificación créditos modalidad transferencia de créditos**

El Sr. Alcalde da la palabra al Sa. Interventor quien da cuenta del informe emitido por Intervención sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto del expediente de modificación de créditos: transferencia de crédito.

Estabilidad presupuestaria: el expediente de aprobación del presupuesto presenta un déficit de 127.520,32 €, y dado que no se prevén operaciones significativas que exijan un ajuste posterior el cálculo se ha efectuado como diferencia entre los ingresos de los capítulos 1 al 7. El objetivo legal para 2015 es de déficit cero. Por tato no se cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria.

Urretxuko udala

Jasangarritasun finantzarioa: Zorra 2015eko abenduaren 31n 2014an kitatutako ohiko sarreren %22,18 izatea espero da. 2015erako ezarritako xede legala %95 baino txikiagoa izatea da. Ondorioz, jasangarritasun finantzarioaren helburua betetzen da.

Sostenibilidad financiera: A 31 de diciembre de 2015 se prevé que la deuda suponga el 22,18% de los ingresos corrientes que se prevén liquidar en 2014. El objetivo legal establecido para 2015 es que la citada magnitud sea inferior al 95%. Por tanto se cumple con el objetivo de sostenibilidad financiera.

Gastu araua: 2014 eta 2015 urteen arteko konputagarria den gastuaren aldaketa %13,92 da, eta 2015erako ezarritako xede legala %1,3 baino txikiagoa izatea da. Ondorioz, gastu araua ez da betetzen.

Regla de gasto: La variación del gasto computable entre 2014 y 2015 es del 13,92%, y el objetivo legal establecido para el 2015 es que sea inferior al 1,30%. Por tanto no se cumple la regla de gasto.

Aurrekontuaren egonkortasuna eta gastuaren erregela betetzen ez dituzten entitateek aukera izango dute ekonomia-finantzaketa planaren ordez Kontuhartzailetzaren komunikazio bat Udalbatzari aurkezteko; komunikazio horretan entitatearen finantza-jasangarritasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da, beti ere ondorengo baldintzak betetzen badira:

- 2014ko aurrekontua diruzaintza eta aurrezki garbi positiboan soberakinekin likidatu edo likidatzeko aurrikuspena izatea.
- 2015erako zor publikoaren eta defizitaren helburuak betetzea.

Kontu-hartzaile jaunak jakitera eman du Urretxuko Udalak bi baldintzak betetzen dituela, eta beraz ez dagoela behartua plan ekonomiko-finantziero bat onartzera; horren ordez komunikazio hau egiten da.

Las entidades que no cumplan el objetivo de estabilidad presupuestaria y la regla de gasto pueden sustituir el plan económico-financiero por una comunicación de Intervención al Pleno en la que se analice, evalue y acredite la sostenibildiad financiera de la entidad, siempre y cuando se cumplan simultáneamente las siguientes condiciones:

- Haber liquidado, o prever liquidar, el presupuesto de 2014 con remanente de tesorería y ahorro netos positivos
- Cumplir los objetivos de deuda pública y déficit para 2015.

El Sr. Interventor comunica que el Ayuntamiento de Urretxu, al cumplir las dos condiciones anteriores no está obligado a aprobar un plan económico-financiero, sustituyéndolo por esta comunicación.

**6.- Sasieta Mankomunitatea: Zabor bilketa edukiontzi grisaren bidez egiteko eskaera.**

**6.- Mancomunidad Sasieta: solicitud de implantación del contenedor gris para la**

Urretxuko udala

Agirre andreak azaldu du honako puntu hau 7. puntuan jasota dagoen tasetako batekin lotuta dagoela.
Sasieta zabortegia ixtearen eta kostuen bidezko tarifa-sistema berriaren ondorioz, Sasieta Mankomunitateak % 36,6ko igoerarekin kobratuko diola bere tasa Urretxuri esanez jarraitu du. Planteamendu horrek alerta sortu zuen, oso igoera handia delako eta, zabortegia itxita, diru-sarrerarik ez delako izango. Mankomunitateak berak planteatu zuen edukiontzi grisa ezartzeko aukera, dirudienez dagoeneko Goierriko herriren batean egiten den bezala; tasa murriztuko luke horrek, gaur egungo edukiontzi berdeen gabeziari erantzuteaz gain.

Gai hau hurrengo puntuan landuko diren Ordenantza Fiskalekin lotuta dagoelako soilik aurkeztu duela une honetan adierazi du, eta, ordenantza horiek urtarrilaren 1ean indarrean egon daitezen, data hauetan onartu behar direla.
Horrez gain, esan du sistemaren iraunkortasun ekonomikoa sustatzea eta tarifa-erregimen berria arintzen saiatzea direla proposamenaren berehalako helburuetako batzuk. Horregatik, planteatu zen asteartean edukiontzi grisa eskatzea. Bestalde, jakinarazi du Bozeramaileen Batzarrean EH Bilduk adierazi zuela haren iritziz ez dela nahikoa eskari bat soilik egitea, eta plangintza bat ezinbestekoa dela. Horrexegatik, proposamen honetan, “murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea” ezarri dira helburu generiko gisa, eta bilketa-sistemaren ingurumen-iraunkortasuna eta emaitzak hobetzea berehalako helburu gisa. Horri dagokionez, azpimarratu du Urretxun birziklatze-tasa bilketa-sistema bera duten

<u>**retirada de residuos.**</u>
La Sra. Agirre expone que este punto está relacionado con una de las tasas contenidas en el punto nº 7.
Sigue diciendo que el cierre del vertedero Sasieta y el nuevo sistema de tarificación por costes, supone que la Mancomunidad Sasieta cobrará a Urretxu su tasa con un incremento del 36,6%. Este planteamiento hizo saltar la alerta por la fuerte subida que supone y porque cerrado el vertedero no se dispondrá de ingresos. Desde la propia Mancomunidad se planteó la posibilidad de instalar el contenedor gris que ya debe de estar funcionando en el agún municipio del Goerri, esto nos permitiría una tasa menor, además de suplir las carencias de los actuales contenedores verdes.
Afirma que la razón de presentar este asunto ahora no es otra que el que el asunto está unido con las Ordenanzas Fiscales que se tratarán el punto siguiente, ordenanzas que para estar en vigor a 1 de enero tienen que aprobarse en estas fechas.
Añade que uno de los objetivos inmediatos de esta propuesta es la sostenibildiad económica del sistema e intentar paliar el nuevo regimen de tarificación. Es por ello que el martes se planteó solicitar el contenedor gris. Informa que en Junta de Portavoces, EH Bildu expresó su opinión de que una solicitud sin más no es válida dado que es necesario un planteamiento. Es por ello que en esta propuesta se plantean como objetivos genéricos “reducir, reciclar y reutilizar” y como objetivo más inmediato la sostenibildiad mediomabiental del sistema de recogida y mejorar los resultados. A este respecto señala que a pesar de en Urretxu la

beste herri batzuetan baino handiagoa bada ere, planteatzen den helburua Europako araudiak 2017rako finkatu duena dela, hau da, % 60ko birziklatze-tasa, edo handiagoa. Eta, horretarako, ezinbestekoa da kontzientziazioan eta malgutasun mugatuan oinarritutako bilketa-sistema bat.

Gogorarazi du, iazko urtean, Ingurumen Batzordeko aurreko lehendakaritzak hainbat ekintza eta txosten planteatu zizkiela, eta elkar ulertzera iritsi zirela, nahiz eta bilketaren maiztasunari buruz ikuspegi bera ez izan; aipatutako batzorde horretan ordezkatuta zeuden talde politiko guztiek ikuspegi landua zuten, eta zenbait gauza egin beharrekoak zirela onartzen zuten. Hainbat ekintza planteatu dira, besteak beste, hitzaldiak antolatzea, tupperraren kanpaina, autokonpostajea sustatzeko kanpaina, autokonpostajerako espazioak identifikatzea, etab.
Horietako batzuk jada egiten dira, eta egiten jarraituko dira, positibotzat jotzen direlako, baina Sasietari edukiontzi grisa eskatzea beharrezkoa dela ikusten dute.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, La Rosa jaunak (Irabazi) proposamen hori positibotzat jotzen dutela azaldu du, birziklatzeko beste urrats bat delako, baina beste urrats batzuk ere egin behar direla dio; aukera ona dela, baina beste aukera batzuk hobeak izan daitezkeela, eta, beraz, abstenitu egingo dela esan du.

Martin jaunak (PSE-EE) azaldu du ados daudela edukiontzi grisa ezartzearekin, birziklatzea hobetzearekin eta, gero, berorren

tasa de reciclaje es mayor que en otros municipios que tienen el mismo sistema de recogida, el objetivo que se plantea con éste es el fijado por la normativa europea para el 2017 , esto es una tasa de reciclaje del 60%., e incluso superarlo. Y para ello es necesario un sistema de recogida basado en la concienciación y en la flexibildiad limitada.
Recuerda que el año pasado, desde la anterior presidencia de la comision de Medio Ambiente se les plantearon una serie de acciones y documentos y que se fueron acercando posturas, aún cuando había diferentes puntos de vista en cuanto a la frecuencia de la recogida, pero todos los grupos políticos representados en la citada comisión tenían una visión trabajada y admitían una serie de puntos a realizar. Se han planteado acciones como organización de charlas, campaña de tupper, campaña pra el fomento del auoicompostaje, identificar los espacios para autocompostaje, etc…
Unas se vienen haciendo y las seguirán realizando porque las ven positivas , pero creen que es necesario solicitar a Sasieta el contendor gris.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. La Rosa (Irabazi) , expone que ven esta propuesta positiva porque es otro paso hacia el reciclaje, pero cree qu ese deberían de dar otros pasos, lo ve como una buena opción pero entiende que puede haber otras opciones mejores, es por ello que se abstendrá.

El Sr. Martín (PSE-EE) expone que están de acuerdo en implantar el contenedor gris y mejorar el reciclaje, y despues buscar las

funtzionamendurako oinarriak aurkitzearekin.

Badiola jaunak (EH Bildu) azken lau urtean gai honen inguruan gauza ugari esan direla azaldu du. Ondoren, aurkeztu den testua bi ikuspuntutatik aztertu nahi duela esan du. Alde batetik, moduen ikuspegitik, haren iritziz atzerapauso bat eman delako; eta, horrez gain, planteamendua ez dela gaiari dagokion batzordean aztertu esan du.
Azken batean, erabili den metodologia ez zaio ona iruditzen, eta, horregatik, presazkoa bada ere, puntu hori gai-zerrendatik kentzeko eskatu dio alkate jaunari, dagokion udal-foroan lantzeko konpromisoa hartuta.

Presazko gaiak lantzeko ezohiko osoko bilkurak ere hor daudela gogorarazi du. Gai-zerrendatik kentzeko egin duen eskari hori onartu ezean, funtsa aztertzera joko duela gaineratu du.

Alkate jaunak onartu du erabili den metodoa ez dela egokiena, baina gogorarazi du, Ingurumen Batzordeko lehendakari den aldetik, batzordean gai hau aipatu zela, eta baita Ogasun Batzordean ere, ordenantza fiskalen gaia aztertzean. Eta azaldu du ez duela puntu hau gai-zerrendatik kenduko, presa handia duen gaia delako. Haren asmoa ez dela gaur arte egindako txostenak eta lanak baztertzea dio, baina zabortegia ixteak eta Sasietaren tarifa-sistema berriak sortutako arazo ekonomikoa ere kontuan hartu behar dela gaineratu du.

Haren iritziz, lan egin beharra dago, eta utzi duten planteamenduari eusteko asmoa du, baina berriro aipatu du egoerak duen larritasuna kontuan hartu behar dela;

bases para su funcionamiento.

El Sr. Badiola (EH Bildu) dice que en cuatro años se han dicho muchas cosas respecto a este asunto. Seguidamente expone que quiere analizar el texto presentado desde dos puntos de vista. Por una parte , desde las formas, que a su juicio han dado un paso atrás, además de que el planteamiento no se ha tratado en la comisión correspondiente.
En definitiva no considera buena la metodología empleada, es por ello que, a pesar de la urgencia, solicita al Sr. Alcalde que retire el punto del orden del día, adoptando el compromiso de trabajarlo en el foro municipal correspondiente. Todo ello sin olvidar que para asuntos de urgencia también se dispone del mecanismo de las sesiones plenarias extraordinarias. Añade que en el supuesto de que no se acpete esta solicitud de retirada, entraría a analizar el fondo.
El Sr. Alcalde reconoce que el método utilizado no es el mejor, pero tambien recuerda que, como presidente de la comisión de Medio Ambiente, se citó este punto en la misma, y que también fue comentado en Comisión de Hacienda, con ocasión de las ordenanzas fiscales. Y señala que no va a proceder a retirar el punto del orden del día dada la urgencia que el mismo entraña. Añade que no es su intención desechar los informes existentes hasta el momento ni los trabajos que se han realizado, pero tampoco hay que perder de vista el problema económico que nos acarrea el cierre del vertedero y la nueva tarificación de Sasieta. A su juicio, hay que trabajar y es su intención recoger el planteamiento que

horrexegatik, moduak apur bat alde batera uzteko eskatu dio Badiola jaunari, nahiz eta gai horretan arrazoia ematen dion. EH Bilduk egindako planteamendua eta Osoko Bilkura honetan aurkeztu dena ez direla horren desberdinak adierazi du.

Badiola jaunak (EH Bildu) eskatu du hitza, berari buruz aritu direlako, eta esan dio alkate jaunari kargua hartu zuenean esandakoak eta gaur egun dioena ez datozela bat, baina bere taldea lan egiteko prest dagoela errepikatu du. Era berean, gogorarazi du Erauskin jaunak, Sasietako gerenteak, udaleko talde guztien proposamenak ikusi ondoren egindakoa dela planteamendua, eta ez Bilduk egindakoa, eta garbi gelditu dela Europako zuzentarauetako birziklatze-helburuetara iristeko ez dela nahikoa kontzientziazioa; oso urrun gaude haren helburuetatik: 2017rako, % 60, eta 2020rako, berriz, % 75. Une hartan, EAJk kontzientziazioaren aldeko jarrera zuen, eta Erauskin jaunak hori ez zela nahikoa azaldu zuen. Malgutasun mugatuari dagokionez, aurrerapausotzat jotzen dute, baina ez dute uste edukiontzia aldatzeak birziklatze-tasa aldatuko duenik. Edukiontzi grisak eskuratzeak kostu finko bat dakarrela Sasietarentzat gaineratu du, eta, beraz, horien instalazioarekin tasak nola murritz daitezkeen ez duela ulertzen; horregatik, informazioa eskatzen du, ulertu ahal izateko.

Gainerakoan, gaia sakon aztertu beharra dagoela azaldu du; haren ustez, Erauskin jaunaren planteamendua egokia izan daiteke, eta egia da, alkate jaunak esan duen bezala, egin diren bi planteamenduak ez direla horren desberdinak; baina, kontzientziazioarekin

han dejado, pero, reitera, hay que tener en cuenta la urgencia, por lo que solicita al Sr. Badiola que no se centre en las formas aun y cuando le de la razón en ello, y añade que el planteamiento realizado por EH Bildu y el presentado en este Pleno no es tan dispar.

Por alusiones pide la palabra, el Sr. Badiola (EH Bildu) para decir al Sr. Alcalde que las palabras que dijo cuando tomó el cargo ya no son las mimas, pero reitera la disposición de su grupo para trabajar . No obstante, recuerda que el planteamiento no es de Bildu sino el realizado por el Sr. Erauskin, gerente de Sasieta, despues de ver las propuestas de todos los grupos municipales, habiendo quedado claro que la concienciación no es suficiente para llegar a los objetivos de reciclaje de las directivas europeas de los cuales estamos muy lejos: 60% para 2017 y 75% para 2020. Recuerda que en aquel momento la postura de PNV era la de la concienciación y el Sr. Erauskin manifestó que esto no era suficiente. Respecto a la flexibilidad limitada lo consideran como un paso adelante, pero no creen que el cambio del contenedor vaya a cambiar la tasa de reciclaje. Añade que supone que la adquisición de los contenedores grises supondrán un costo fijo para Sasieta , por lo que no entiende cómo , con su instalación, se puede rebajar la tasa, es por ello que solicita infromación para poder entenderlo.
Indica que, por lo demás, el asunto necesita de un análisis más exhaustivo, entienden que el planteamiento del Sr. Erauskin puede ser adecuado y también es cierto que los dos planteamientos realizados, no son tan dispares como dice el Sr. Alcalde, pero creen

lotuta, neurri osagarriak hartu behar dira, horiek lantzeko aukera eman behar da, eta oinarri sendoak dituen planteamendu bat egin behar da. Horregatik guztiagatik, EH Bilduk kontrako botoa emango du.

hay que tomar medidas supletorias a la propia concienciación, y que hay que tener oportunidad para trabajarlas y hacer un planteamiento con bases sólidas. Es por todo ello por lo que EH Bildu votará en contra.

Martin jaunak (PSE-EE) eskatu du hitza, eta proposamenaren aldeko botoa emango dutela gogorarazi du. Lau urtean hondakinen bilketari buruz hitz egiten aritu direla esan du, eta ez dela adostasunik lortu; hori horrela, beharrezkoa dela lehen urratsa egitea azaldu du, baina kontzientziazioa ahaztu gabe, funtsezkotzat jotzen baitute.

El Sr. Martín (PSE-EE) pide la palabra y reitera que van a votar a favor de la propuesta, y expone que durante cuatro años han estado dando vueltas al asunto de la retirada de residuos y no se ha legado a acuerdos, cuestión por la que cree que hay que dar el primer paso, pero sin olvidar la concienciación que ellos entienden primordial.

Agirre andreak (EAJ-PNV) eskatu du hitza, eta esan du planteamendua ezin dela mugatu soilik edukiontzi grisa jartzera, eta onartzeko proposatu den eskariak ez duela esan nahi besterik gabe edukiontzia ezartzea. Sasietak ezarritako jarraibideak kontuan hartu beharko direla azaldu du, eta zerbait gehiago egitea ere plantea daitekeela; horrez gain, kontzientziazioa ezinbestekoa dela iruditzen zaiola adierazi du. Hori guztia, edukiontzi grisari dagokionez; lehen hitz egin duenean adierazi baitu aurreko legealditik datozen Bilduren gainerako planteamenduak beren gain hartzen dituztela, eta horiekin aurrera egingo dutela.

La Sra. Agirre (EAJ-PNV) pide la palabra, dice que es cierto que el planteamiento no se puede ceñir solamente a poner el contenedor gris por lo que la solicitud cuya aprobacióin se propone no quiere decir qu ese instale el contenedor sin más , sino que habrá que seguir las pautas que marque Sasieta, además de poder incluso plantearse hacer algo mas, y cree que la concienciación sí es imprescindible. Todo esto en referencia al contenedor gris, porque como ya ha dicho en su anterior intervención, asumen el resto de planteamientos de Bildu que vienen de la anterior legislatura y seguirán adelante con los mismos.

Badiola jaunaren esku-hartzeari dagokionez, hark bere jarrera bi zatitan bereizi duela esan du, moduak eta funtsa bereiziz. Moduei buruz esandakoa onartzen du, eta hasierako planteamendua gogorragoa eta laburragoa zela ere onartzen du, soilik edukiontzia eskatzera mugatzen baitzen, eta, horrexegatik, EH Bilduko bozeramaileak eskatutakoa, hau da,

Respecto a la intervención del Sr. Badiola, indica que éste ha dividido su postura en dos partes, las formas y el fondo. Acepta lo expuesto respecto a las formas, e incluso acepta que su planteamiento inicial, incluso era más duro y conciso, se limitaba a la solicitud del contenedor, por lo que aceptaron que había que realizar un planteamiento

planteamendua egin beharra, onartu zutela azaldu du; hala ere, gure zabor-tasa Sasietak aplikatzen digun igoeraren mende dagoenez eta hori edukiontzi grisaren mende dagoenez, berori ezartzeko eskariak presa duela ulertzen duela adierazi du.
EAJ alderdiak Ingurumen Batzordean planteatu denaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen duela gaineratu du, eta gogorarazi du edukiontzi grisa ez dela oraingo ideia berri bat, iaz ere hitz egin baitzen horretaz. Eskaria egin ondoren, nola funtzionatu behar duen aztertu behar dela esanez jarraitu du, eta hori elkarlanean egin beharrekoa dela; gogorarazi du lehen ere azaldu duela Europako zuzentarauak 2017rako ezarritako birziklatze-tasara heltzea dela helburua.
Badiola jaunak edukiontziak eskuratzeak ekarriko lukeen kostu finkoari buruz azaldu duen zalantzari dagokionez, esan du Ingurumen Batzordera igorriko direla Sasietak emandako koadro ekonomikoak, eta edukiontzi horiek ez dituztela herriek ordaintzen, kaxa komunetik ordaintzen baitira, beste herrietan aurrez hartu diren neurriak ordaindu diren bezalaxe.

Era berean, esan dio, EH Bilduren botoa aurkakoa den arren, haren planteamenduak onartuko dituela, hots, edukiontzi grisaren alde daudela, nahiz eta hori ez den beren azken helburua; ahalik eta tasa baxuenen alde daudela; eta aurrez Ingurumen Batzordean egindako planteamenduei jarraitzearen alde daudela, planteamendu horiek gauzatu daitezkeela uste baitu Agirre andreak.

como solicitaba la portavoz de EH Bildu, pero dado que nuestra tasa de basura depende del incremento que Sasieta nos aplique y que éste depende del contenedor gris, se ha entendido que la solicitud de su implantanción tiene urgencia. Añade que el PNV se compromete a seguir trabajando lo que se ha planteado en comisión de Medio Ambiente, y recuerda que el contenedor gris no es una reciente y nueva idea ya que el año pasado también se citó el mismo. Sigue diciendo que tras la solicitud, hay que trabajar en cómo tiene que funcionar y este es un asunto abierto al trabajo entre todos, REcuerda que, como ya ha dicho en su anterior intervención, el objetivo es alcanzar la tasa de reciclaje de la directiva europea para el 2017. Respecto a la duda que ha planteado el Sr. Badiola en relación al costo fijo que puede suponer la adquisición de contenedores, señala que se trasadará a la comisión de Medio Ambiente los cuadros económicos faclitados por Sasieta, y aclara que la compra de estos contenedores no va a cargo de los municipios ya que se abonan a cargo de la caja común, al igual que se han abonado las medidas adoptadas con anterioridad en otros municipios.
Asimismo le dice que, a pesar del voto en contra de EH Bildu, se va a quedar con sus planteamientos, esto es que son partidarios del contenedor gris aunque este no sea su objetivo final; que son partidarios de tasas lo más bajas posibles; y que son partidarios de seguir los planteamientos realizados con anterioridad en comisión de Medio Ambiente, planteamientos c¡en los que, la Sra. Agirre, cree que podrán trabajar.

Urretxuko udala

Badiola jaunak eskatu du hitza, eta informazio gehiago lortu izanaz pozten dela adierazi du; baina kaxa komun horretan udal hau ere badagoela eta ekarpena egiten duela azpimarratu du. Sasietak edukiontzi grisa ezartze hutsarekin tasak nola murriztu behar dituen galdetuz jarraitu du, eta, Agirre andrearen mintzaldiari dagokionez, ez duela erantzungo esan du, guztiek ezagutzen baitute haren gobernu-programa.

Eztabaida amaituta, bozketa egitera jo da; eta honako hau erabaki da alkate jaunaren eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martín (PSE_EE) eta Nieves (PSE-EE) zinegotzien aldeko botoarekin {7 boto alde}, Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) eta Otegi (EH Bildu) zinegotzien aurkako botoarekin {5 boto aurka} eta La Rosa jaunaren (Irabazi) abstentzioarekin:

**Lehenenengo.-** Hondakinen kudeaketarako udal-plan bat diseinatzea, gaikako bilketaren tasei, gaur egungo bilketaren tasei eta errefusaren tasei buruzko diagnostiko bat jasoko duena. Aldi berean, tasa horiek hobetzeko eta gutxienez Europako zuzentarauetan zehaztutako helburuak lortzeko neurri zehatzak jasoko dituen plan bat izango da. Zehazki, herritarrei eta hondakin sortzaile handiei zuzendutako kontzientziaziorako eta komunikaziorako neurri espezifikoak jasoko ditu, hiru helburuak lortzera bideratuta: birziklatzea, murriztea eta berrerabiltzea.

El Sr. Badiola pide la palabra, y manifiesta que se alegra de haber obtenido más información, pero que en esa caja común también está y aporta este ayuntamiento. Sigue preguntándose cómo Sasieta se plantea reducir la tasa sólo con la implantanción del contenedor gris, y en cuanto al resto de la intervención de la Sra. Agirre dice que no va a responder porque todos conocen su programa de gobierno.

Finalizado el debate y sometido el asunto a votación, con los votos a favor del Sr. Alcalde y los concejales Sr@s Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martín (PSE_EE) y Nieves (PSE-EE) {7 votos a favor}, los votos en contra de los ediles Sr@ Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu) {5 votos en contra}, y la abstención del Sr. La Rosa (Irabazi), se acuerda:

**Primero**.- Diseñar un plan municipal de gestión de residuos que contenga un diagnóstico de las tasas de recogida selectiva, de las tasas de recogida actuales y de las tasas de fracción resto. Un plan que, al mismo tiempo, contemple medidas concretas para mejorar dichas tasas y alcanzar al menos los objetivos señalados en las directivas europeas. Más concretamente medidas de concienciación y comunicación específicas para la ciudadanía y para los grandes generadores de residuos, tendentes todas ellas a alcanzar los tres objetivos de reciclar, reducir y reutilizar.

**Bigarren.-** Sasieta Mankomunitateari 2016rako Urretxurako bilketa-sistema bat ezartzeko eskatzea, honako alderdi hauek oinarri hartuta:

- Edukiontzi berdea kentzea, eta itxitako edukiontzi grisa ezartzea, errefusaren bilketarako txartel bidez ireki ahal izango dena.
- Errefusa biltzeko zerbitzu pertsonalizatu bat dendentzat.
-

Eta hori guztia, edukiontzi grisak lortutako emaitza onak kontuan hartuta, eta gure bilketa-sistemaren eraginkortasuna eta, beraz, birziklatzea hobetzeko helburuarekin, eta baita Sasieta zabortegia ixteak sortutako inpaktu ekonomikoa ahal den neurrian murrizteko helburuarekin ere.

**Segundo.**- Solicitar a Mancomunidad Sasieta que para el año 2016 establezca para Urretxu un sistema de recogida basado en :

- La retirada del contenedor verde y la instalación del conteneor gris cerrado y con apertura a través de tarjeta para la recogida de la fracción resto
- Un servicio personalizado para la recogida de la fracción resto a los establecimientos comerciales.

Todo ello atendiendo a los buenos resultados obtenidos por el contenedor gris y con el objeto de mejorar en la eficiencia de nuestro sistema de recogida, y por ende, de reciclaje, así como para reducir en la medida de lo posible el impacto económico generado por el cierre de vertedero de Sasieta.

**<u>7.- Zerga Ordenantzen aldaketa 2016rako:</u>**
**<u>a) Udal-zergak. Kuotak eta tasak aldatzea: hasierako onarpena.</u>**
**<u>b) Udal-zergak aldatzea: hasierako onarpena.</u>**

Lehenik eta behin, Agirre andreak, Ogasun Batzordearen eta Kontuen Batzorde Bereziaren lehendakariak, ordenantza hauek une honetan proposatzeko arrazoia azaldu du; izan ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abenduaren 31 baino lehenago argitaratu behar dira, zerga eta tasa askoren irabazkinaren data urtarrilaren 1a dela kontuan hartuta.
Eta, gainerakoetan, ordenantzen testu osoa argitaratu ondoren.

Gogorarazi du korporazioko kideei prozesuaren berri eman zitzaiela, eta lan-bilerak urrian zehar egin dira. Lehenengo bileraren helburua, une

**<u>7.- Modificación Ordenanzas Fiscales para el 2016:</u>**
**<u>a) Impuestos municipales modificación de cuotas y tipos: aprobación inicial.</u>**
**<u>b) Modificación de tasas municipales: aprobación inicial.</u>**

En primer lugar, la Sra. Agirre, presidenta de la Comision de Hacienda y Especial de Cuentas, expone que las presentes ordenanzas se proponen en este momento porque deben estar publicadas en el Boletín Oficial de Gipzukoa antes del 31 de diciciembre habida cuenta de que la fecha del devengo de muchos impuestos y tasas es a 1 de enero,. Y en el resto trasla publicación del texto completo de las ordenanzas.
Recuerda que ya se informó a los corporativos mde cómo iba a ser el proceso y las reuniones de trabajo se han ido

honetan ditugun ordenantzak azaltzea eta ezagutzea izan zen; ondoren, gobernu-taldeak planteamendu orokorra egin du, eta bi puntu hauek gelditu dira zehazteke: zaborren bilketa-tasa eta ur-tasa.

Planteamendu orokorra zergak eta tasak izoztea dela jakinarazi du; horrez gain, beste berrikuntzaren bat eta teknikariek proposatutako zenbait aldaketa planteatu ditu, zehaztapen batzuk egiteko beharra ikusten baitute haiek.

Ondoren, Agirre andreak **zergak** aztertzeari ekin dio, ondorengo proposamena eginez:

**Ondasun higiezinen gaineko zerga (OHZ):**
Zerga-tasak izoztea proposatzen da.

Une honetan indarrean dauden hobariei eutsiko zaie, bai eta etxebizitza hutsengatiko emendatzeari ere, azken horretan alegazioak aurkezteko epea murriztu den arren. Familia ugariei zuzendutako hobarian aldaketa bat egin da: orain arte seme-alaben kopuruaren arabera egiten zen, eta hemendik aurrera foru aldundian erabiltzen den irizpide berbera erabiliko da, hau da, familia ugari arruntak eta familia ugari bereziak (gurasobakarrak edo ahalmen urriko kideak dituztenak) bereiziko dira. Horrela, talde gehiagorengana iritsi nahi da.

**Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ):**
Ez dago aldaketarik, udal-koefizienteak eta hobariak bere horretan gelditukodira. Azken

sucediendo durante este mes de octubre. En la primera reunión el objetivo era explicar y conocer las ordenanzas de las que disponemos, y a partir de aquí el equipo de gobierno ha hecho su planteamiento general quedando dos puntos sin definir: la tasa de recogida de basuras y la tasa de de agua.

Informa que el planteamiento general es la congelación de impuestos y tasas, además de alguna novedad y varias modificaciones que se proponen tras platenamientos efectuados por los técnicos que estiman la necesidad de hacer algunas concreciones.

Seguidamente la Sra. Agirre, pasa a analizar los distintos **impuestos**, exponiendo que se propone:

**Impuesto sobre bienes inmuebles (IBI):**
Se propone la congelación de los tipos de gravamen:
Se mantienen tanto las bonificaciones existentes, como el recargo por vivienda vacía, aunque en este último se reduce el plazo de alegaciones. Se realiza una modificación en la bonificación a familias numerosas, que hasta ahora se realizaba en función del número de hijos y ahora se plantea de acuerdo al cirterio que también se utiliza en Diputación Foral, esto diferenciando entre familias numerosas ordinarias y familias numerosas especiales (monoparentales o con discapacitados). Con ello se pretende llegar a más colectivos.

**Impuesto sobre actividades económicas (IAE):**
No hay modificaicones, se mantienen los

Urretxuko udala

horiei dagokienez, ia aplikatzen ez direla egiaztatu da, ziurrenik enpresek horien berri ez dutelako. EH Bilduk komunikazio-kanpaina bat egitea planteatu zuen.

**Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga(EIOZ):**

Zerga-tasari bere horretan eutsiko zaio: % 5.
Kontuan izanda, hobariari dagokionez, udalbatzak ikastetxeetako obrak interes publikokotzat aitortu zituela, hobari hori graduatu da, eta soilik irakaskuntza-izaerako instalazioetan aplikatuko dela zehaztu da; hala, bada, 60.000 € arteko zerga-oinarria izanik, % 50 arteko hobaria aplikatuko da EIOZn, eta zerga-oinarria 60.000 €-tik gorakoa bada, hobaria % 25ekoa izango da.

**Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (gainbalioa), eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga:**
Ez dira aldaketak planteatzen.

**Tasei** dagokienez, zenbait berrikuntzaz gain, zenbait aldaketa tekniko ere planteatu dira.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera publikoak burutzeagatik ordaindu beharreko tasei dagokienez, ondoko aldaketa hauek planteatu dira:

- Udaleko azoka eta azoka txikien zerbitzua: tarifa metro koadroen arabera ezarriko da (lehen metro linealak

coeficientes municipales y las bonificaciones. Respecto a estas últimas se ha comprobado que, prácticamente, no se aplican, debido quizás al desconocimiento que de las miasm tiene las empresas, Por EH Bildu se planteó realizar una campaña de comunicación.

**Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras (ICIO):**
Se mantiene el tipo impositivo: 5%.
Teniendo en cuenta, que, de cara a la bonificación, el Pleno declaró de interés público las obras en centros escolares, se ha graduado dicha bonificación estableciéndose que la misma se aplicará exclusivamente en las instalaciones de carácter docente, de forma que con una base imponible de hasta 60.000 € se aplicará una bonificación del 50% en el ICIO, y si la base imponible es superior a 60.000 € la bonificación será del 25%.

**Impuesto sobre incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana (plusvalía), y en el Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica:**
No se plantean modificaciones.

En cuanto a las **tasas**, además de algunas novedades se han planteado algunas modificaciones de tipo técnico.

En las Tasas del grupo por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, se plantean las siguientes modificaciones:

- Servicio de mercado y mercadilos municipales: se establece la tarifa pormetros cuadrados (antes metros

Urretxuko udala

hartzen ziren kontuan). Kuota aurrekoaren oso antzekoa izango da.

- Ibilgailuak geldiaraztea eta eramatea (garabia): zerbitzuaren benetako kostuaren arabera egokitu da, eta asteburuko tarifa ostiral arratsaldean hasten dela adierazi da.
- Labeaga aretoaren erabilera: prezioa aldatu da, teknikariaren benetako kostuaren arabera. Gainera, % 100eko hobaria ezarri da udal-intereseko talde kulturalek, sozialek eta kirol-taldeek erabiltzen duten kasuetarako.

- Kultur Etxeko tailerrak eta ikastaroak: ikastaro-motaren arabera egokitu dira.

- Ikuskizunetarako eta beste jarduera batzuetarako sarrerak: ikuskizun-motaren arabera egokitu dira.
- Auzobusa: prezio sinbolikoari eutsi zaio.

Honako berrikuntza hauek planteatu dira tasen multzo honetan:

- Hirigintza-zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa sortu da; kuota batzuk ordaindu beharko dira hirigintza-agiriak izapidetzeagatik, hala nola birpartzelazio-proiektuak, hirigintzako jarduketa-programak, desjabetzeak edo aurri-adierazpenak izapidetzeagatik, konplexutasun teknikoa duten izapideak direlako.

- Udal-ondasun jakin batzuk erabiltzeari dagokion epigrafean, tasa berri bat sortu da, karparen erabilerari dagokiona, hain zuzen ere. Eta elkarrekikotasun-klausula ere hartu da kontuan.

Tasen multzo horren barnean, eta ur-

lineales). La cuota resultante resulta prácticamente la misma.

- Inmovilización y retirada de vehículos (grua): se ha adecuado al costo real del servicio, y se aclara que la trifa de fin se demana comienza el viernes por la tarde.
- Utilización salón Labeaga: Se modifica el precio en función del costo real del técnico. Ademas s eestablece una bonificación del 100% cuandola utilización la realicen grupos culturales, sociales y deportivos d einterés municipal.
- Talleres y cursos Casa Cultura: se ha adecuado en función de la tipología de los cursos.
- Entradas a espectáculos y otras actividades: Se adecuan en función de los espectáculos.
- Auzobusa: se ha mantenido el rpecio simbólico.

En este grupo de tasas se plantean como novedadades:

- La creación de la Tasa por prestación de servicios urbanísticos, donde se plantean unas cuotas por la tramitación de documentos urbanísticos tales como proyectos de reparcelación, programas de actuación urbanizadora, expropiaciones, declaraciones de ruina, por tratarse tramitaciones de complejidad técnica.

- En el epigrafe correspondiente a la utilización de determinados bienes municipales, se ha creado una nueva tasas, la correspondiente al uso de la carpa. Y se ha contemplado la clausula de reciprocidad.

Dentro de este grupo de tasas, y en

Urretxuko udala

horniduragatik ordaindu beharreko tasari dagokionez, Aquarbe enpresak, zerbitzu horren hornitzaileak, tasa hori % 1,5 igotzeko proposamena egin zuen. PSE-EE alderdiak igoera hori ez egiten ahalegintzeko eskatu zuen, eta Zabaleta andreak kontzesioa arautzen duen plegua aztertzeko eta tasa hori izozteko planteatu zuen.

Zaborrak biltzeagatiko tasei dagokienez, Sasietak % 36,6ko igoera planteatu du bere tasan. Agirre andreak adierazi du eurek ere ez dutela tasa hori igo nahi, baina udalak ez daukala ahalmenik zerbitzuaren kostuan gertatuko den igoera hori bere gain hartzeko, eta herritarrek hartu beharko dutela beren gain.

Hala ere, gainerako zergak eta tasak izoztuz arindu nahi dute igoera hori. Ondoren, adierazi du edukiontzi grisa ezartzean Sasietaren tasa % 25 murriztuko litzatekeela planteatu dela azken unean, eta horregatik egin da aurreko puntuan aztertutako eskaera.

Hala eta guztiz ere, jabetzen dira igoera handia dela.

Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasei dagokienez:

- Hesiak, aldamioak eta abar ezartzeagatik ordaindu beharreko tasa doitu da; lehen metro linealen arabera ordaintzen zen, eta hemendik aurrera metro koadroen arabera ordainduko da.
- Zaindariaren jaietan izaten den kalez kaleko salmentaren prezioa garestitu

referencia a la tasa por abastecimiento de agua, por la empresa concesionario del servicio, Aquarbe, el pasado jueves se hizo una propuesta de incremento del 1,5%. Por el grupo PSE-EE se solicitó realizar un esfuerzo para bajar este incremento, y por parte de la Sra. Zabaleta se planteó que se analziara el pliego regulador de la cocnesión, plateando además la congelación de esta tasa.

En cuanto a la tasas por recogida de residuos, Sasieta ha planteado un incremento en su tasa del 36,6 %. La Sra. Agirre expone que les gustaría no subir esta tasa, pero el ayuntamiento no tiene capacidad para asumir este incremento en el costo del servicio y lo tiene que repercutir en los ciudadanos. No obstante con la congelación del resto de impuestos y tasas pretenden paliar este incremento. Sigue diciendo que en el último momento se ha planteado que con la instauración del contenedor gris la tasa de Saasieta se vería reducida en el 25%, de ahí la solicitud que se ha tratado en el punto anterior. Señala que son conscientes de aún y todo es una fuerte subida.

En las Tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio publico :

- Se ha ajustado la tasa por ocupación con vallas, andamios, etc., que anteriormente se computaba por metro líneal pasando ahora a m2.
- Se ha incrementado el precio de los puestos de venta ambulante de fiestas patronales para que sea má

da, Santa Lutziko azokan ordaintzen denarekin parekatzeko. Mineralogiako postuak ere hemen txertatu dira.

- <u>Pasabideei, ibilgailuen sarrerei eta espazioen erreserbei</u> dagozkien tasak ere egokitu dira; pasabideagatiko beherapenaren % 50 kendu da, eta garajeetarako espazio-erreserba. Espazio-erreserba utzi da soilik, pasabidea garajeetarako espazioaren erreserba gisa bereizi da, eta espazio-erreserba garajeetako sarrera gabekoa izango da.

Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalaren bide publikoetako lurzoru, zorupe edo hegaldunaren erabilera pribatiboa egiteagatik ordaindu beharreko tasari dagokionez, aldaketa bat planteatu da, Orange enpresak udal-tasa horren aurrean aurkeztutako administrazioarekiko auziari epaitegiak emandako epaiaren ondoriozkoa. Aste honetan bertan jaso da epai hori. 2.1 b) artikuluaren idazketa aldatu egin da, eta honako esaldi hau kendu da: *“sareen edo instalazioen titulartasuna norena den alde batera utzita”.*

Agirre andrearen azalpen-txanda amaitu ondoren, hitz egiteko txandari ekin zaio, eta La Rosa jaunak (Irabazi) adierazi du zenbait punturekin ados daudela, baina beste batzuekin ez, adibidez, hondakinak biltzeko tasaren garestitzearekin eta etxebizitza hutsengatiko errekarguarekin. Horregatik, proposamenaren kontrako botoa emango dute.

Martín jaunak (PSE-EE), lehenik eta behin,

acorde con el precio que se liquida en la feria de Santa Lucía. También se han incorporado los puestos de mineralogía.

- Se han acomodado las tasas correspondientes a <u>vados, entradas de vehículos y reservas de espacio</u>, elimando el 50% por rebaje de vado, y la reserva de espacio garajes, dejando únicamente la reserva de espacio, y distinguiendo el vado como reserva de espacio para garajes, y la reserva de espacio sin entrada a garajes.

En la Tasa por la utilización privativa del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales a favor de empresas explotadoras de servicios de suministro, se plantea una modificación derivada de la sentencia, recibida esta misma semana, dictada en el contencioso-administrativo que Orange presentó frente a esta tasa municipal. Por ello se modifica la redacción del artículo 2.1 b) de forma que se elimina de la misma la siguiente frase: *“con independencia de la titularidad de las redes o instalaciones”.*

Finalizada la exposición de la sra. Agirre e iniciado el turno de intervenciones, el Sr. La Rosa (Irabazi), expone que están de acuerdo con algunos puntos y con otros están en desacuerdo, como el incremento en la tasa de recogida de residuois y el recargo por vivienda vacía, por lo que votarán en contra de la propuesta presentada.

El Sr. Martín (PSE-EE), en primer lugar,

udal-talde guztien artean egon den sintonia ona eskertu du, eta proposamenaren alde bozkatuko dutela esan du, euren ustez egokia delako; ados daude udal-ondasunak erabiltzeagatiko tasetan ezarritako elkarrekikotasun-klausularekin, ur-horniduraren tasa izoztea eskertzen dute, eta, hondakinak biltzeagatiko tasari dagokionez, igoera handia dela ulertzen dute, baina beste irtenbiderik ez dagoela uste dute.

Zabaleta andreak (EH Bildu) adierazi du proposamena, oro har, egokia iruditu zaiela, tasak izoztea planteatzen delako, eta euren ustez irizpide egokia da hori, urte arteko KPI negatiboa dela kontuan hartuta. Aurreko ekitaldiko hobari asko bere horretan mantendu direla ikusi dute, eta, beraz, filosofia berari eutsi zaio.

EIOZ diru-sarrera iturri bat denez udalerriarentzat, positiboa iruditzen zaie interes publikoko zentroetan egingo diren obretan hobaria ezartzea. Bestalde, positiboa iruditzen zaie baita ere etxebizitza hutsengatiko errekarguari eustea, etxebizitzaren lege berria indarrean sartu ondoren formalismo hutsa izango den arren; horrez gain, Agirre andreak esan duen moduan, errekargu hori udalerrian hutsik dauden etxebizitzen kopurua zenbatzeko egokia da baita ere, hala, errealitatea ondo ezagutu ahal izateko.

Udalaren zerga-sistemaren progresibotasunari dagokionez, orain arte egin dela eta, une honetan, familia ugariaren kontzeptu berriarekin, sendotu egin dela uste dute.

agradece la buena sintonía habida entre todos los grupos municipales, y expone que van a votar a favor de la propuesta por entender que es correcta, están de acuerdo con la clausula de reciprocidad en la tasas por utilización de bienes municipales, agradecen la congelación de la tasa por abastecimiento de agua, y respecto a la tasa por recogida de residuos, entienden que es un incremento fuerte pero también creen que no se puede hacer otra cosa.

La Sra. Zabaleta (EH Bildu) dice que ven que la propuesta en su conjunto es buena, porque se plantea una congelación, un criterio acertado teniendo en cuenta que el IPC interanual es negativo. Ven que muchas de las bonificaciones provenientes del ejercicio anterior se mantienen, por lo que entienden que se sigue con la misma filosofía.

Entendiendo que el ICIO es una fuente de ingresos para el municipio, ven de forma positiva la bonificación en el mismo para las obras en centros de interés público. También consideran positivo que se mantenga el recargo por vivienda vacía, aunque es cierto que con la nueva ley de vivienda este será un mero formalismo, y también entiende, como ha dicho la Sra. Agirre, que este recargo sirve para contabilizar el parque de vivienda vacía que tenemos y así conocer la realidad.

Respecto a la progresividad en la fiscalidad municipal, entiende que se ha venido haciendo y que en este momento se ha reforzado con el nuevo concepto de familia numerosa.

Ondoren, aurrekontuan, udal-zerga horietatik jasotako diru-sarrerak nola erabiliko diren zehaztuko dela adierazi du. Gaineratu du egia dela tasen bidez ekonomia susta daitekeela, eta Urretxu erabat industriala ez den arren, enpresak badaudela, eta beraz, enplegu finkoa sortzearen ondorioz ekonomia-jardueren gaineko zergan hobaria izatea tokiko ekonomia hori sustatzeko edo saritzeko modu bat dela; hala ere, Agirre andreak esandakoaren ildotik, enpresek hobari hori eskuratzeko aukera dutela jakin behar dute.

Ur-horniduragatik ordaindu beharreko tasa izozteari dagokionez, PSE-EE eta EH Bildu alderdiek eskatu zutela gogorarazi du, eta, gainera, kontzesiodun enpresak azpiegituretan egiten dituen eta udalerriak jasotzen dituen inbertsioak aztertu behar direla uste dute.

Epaia betetzeko planteamendua egokia iruditzen zaiela adierazi du gero, eta proposatzen diren gainerako aldaketak aplikazioa abiarazi ondoren planteatutako hobekuntzak direla. Gatazka nagusia hondakinak biltzeagatik ordaindu beharreko tasan datza, eta adierazi du korporazioko gainerako kideek ondo dakitela EH Bilduk horren inguruan zer iritzi duen; gainera, Badiola jaunak horren inguruko azalpena eman du aurreko puntuan. Hala ere, igoera gradualki plantea daitekeela uste dute, beste udalerri batzuetan, Ordizian, adibidez, egin dutenaren bidetik. Bestalde, ordaindu beharreko tasa sortzen den zaborraren araberakoa izatearen aldekoak direla esan du, eta irizpide horrek ez duela Sasietaren egoerarekin zerikusirik; bere ustez, ez dira herritarrak nahastu behar bi kontu horiekin. Tasarekin zerikusirik ez duen arren,

Señala que después, en el Presupuesto, se verá cómo se utilizan los ingresos provenientes de estos tributos municipales. Sigue diciendo que es cierto que se puede fomentar la economía con una serie de tasas, y que a pesar de que Urretxu no sea eminentemente industrial hay empresas, pòr lo que la bonificación el IAE por creación de empleo fijo es una forma de fomentar o premiar a esa economía local, pero como ha dicho la Sra. Agirre las empresas tienen que conocer que esa bonificación existe.

En cuanto a la congelación de la tasa por abastecimiento de agua la solicitó el PSE-EE y también EH Bildu, y además creen que hay que analizar las inversiones en infraestructuras que la concesionaria hace y el municipio recibe.

Sigue diciendo que el planteamiento para cumplir la sentencia lo ven correcto, y que el resto de modificaicones que se proponen son mejoras que se plantean una vez iniciada la aplicación. El conflicto se centra en la tasa por recogida de residuos, y dice que el resto de la corporación ya conoce la opinión que EH Bildu tiene al respecto, además de que el Sr. Badiola ya lo ha explicado en el punto anterior, pero también creen que se puede plantear el incremento de forma gradual tal y como han hecho otros municipios, como por ejemplo Ordizia. Añade que también son partidarios de que la tasa se cobre en función de lo que se genera, pero que este criterio no tiene nada que ver con la situación de Sasieta y es por ello que opina que no se tiene que confudir a la ciudadanía. Entiende que, aunque no tiene que ver con la tasa, el

1.600.000 €-ren ordainketa beste modu batean plantea daitekeela esan du, Hondakinen Kontsortzioarekin hitzarmena eginez; bestalde, badakite udalak une honetan ez duela Urretxuri dagokion kopurua (67.000 €) ordaintzeko dirurik, baina aurreikuspenak hobetu egingo direla espero dute, esate baterako Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren bidez eta EIOZ zergatik irits daitezkeen diru-sarrerei esker. Azken batean, uste dute 2016. urtean kopuru horri aurre egin ahal izango zaiola, eta herritarrek ez dutela zertan horren eraginik jaso.

Azkenik, azaldutako guztia kontuan hartuta, bozketa bereiztea eskatu dute, hau da, alde batetik hondakinak biltzeko tasa bozkatzea, eta, bestetik, udalaren gainerako zergak eta tasak.

Agirre andreak (EAJ-PNV) esker ona adierazi die batzordean parte hartu duten guztiei, debatea konstruktiboa izan delako. Udalaren zerga-sistema urtez urte progresiboagoa izan ohi dela adierazi du, eta proposamenak aurkeztu eta onartu izan dituztela, baita hobariei buruzkoak ere, zenbait kasutan, kudeaketa bera horiek dakartzaten diru-sarrerak baino garestiagoa den arren.

Sasietaren tasaren igoerarekin ados ez dagoela adierazi du, hiru urtean eta modu gradualean egiten bada ere ez, hurrengo ekitaldian % 36ko igoera izango baitu. Sasieta Mankomunitatean “zulorik” ez dagoela esan da, eta ez dago ados horrekin, izan ere, abenduaren 31 baino lehen Urretxuk 60.000 € ordaindu behar ditu mankomunitate horrek duen 1.600.000 €-ko defizitari aurre egiteko, eta gogora ekarri du lehen zuen soberakin positiboa ere, 1.000.000

abono del 1.600.000 € se puede plantear de otra forma, mediante convenio con el Consorcio de Residuos, y también saben que, efectivamente, el ayuntamiento no dispone en este momento de los 67.000 € que le corresponden a Urretxu, pero creen y esperan que las perspectivas sean mejores, por ejemplo en el Fondo Foral de Financiación municipal y en los ingresos provenientes del ICIO. En definitiva, opinan que en el año 2016 se va a poder hacer frente a esta cantidad sin tener que repercutirla en los ciudadanos.

Por último teniendo en cuenta todo lo expuesto, solicitan se proceda a la votación por separado, por una parte la tasa por recogida de residuos, y por otra el resto de impuestos y tasas municipales.

La Sra. Agirre, (EAJ-PNV) agradece a todos los que han participado en la comisión por haber realizado un debate constructivo. Expone que la fiscalidad municipal suele ser cada año más progresiva, y explica que han presentado propuestas y han aceptado propuestas, relativas incluso a bonificaciones que, en algunos casos, suponen más gasto en la gestión que el propio ingreso que generan.

Dice no estar de acuerdo con que el aumento de la tasa de Sasieta, se realice de forma gradual en tres años, porque lo que aumenta es un 36% ya para el próximo ejercicio. En cuanto a lo que se ha dicho en relación a que en la Mancomunidad Sasieta no hay “agujero” , opina lo contrario dado que antes del 31 de diciembre Urretxu tiene que aportar 60.000 € para hacer frente al déficit de 1.600.000 € que esa mancomunidad

€-koa, agortu duela.

Egoera hori eta datu horiek berriak ez direla adierazi du, lehenagotik ere ezaguna zelako eta zabortegia itxita izanik espero zitekeelako. Azken batean, bere ustez erraza da esatea beste irtenbide batzuk badirela, halakorik ez dagoenean. Ezin du onartu ezta ere egoera hori lehenagotik datorrela esatea, 2011. urtean ezaguna baitzen Sasieta zabortegiaren egoera ingurumen-irizpideak betetzeari zegokionez, eta orduan ez zen ezer egin; jakina, azkenean premia larria bihurtu da, eta egitea ezinezkoa den iragaztea planteatu da. Horrek guztiak esan nahi du aurrera begiratu beharra dagoela eta ematen zaigun zerbitzua ordaindu behar dela, eta beharrezkoa da ordaintzeko planteamenduak egoeraren errealitatearen arabera egokitzea.

Hitz egiteko bigarren txandari hasiera emanda, Zabaleta andreak (EH Bildu) eskatu du hitza, eta adierazi du sortutako zaborraren arabera ordaintzearen eta zabortegiaren egoeraren artean loturarik ez dagoela esan duela PSE-EE taldearen ordezkari den Martín jaunak egindako adierazpen bati erantzuteko, herritarrak bi kontu horiekin nahas ez daitezen. Ondoren, esan du zaborrak biltzeko tasa populista izan dela betidanik, baita 2011. urtearen aurretik ere, eta hori mailakatzeko premia dagoela ikusten dute; horren aurrean, Sasietaren “zuloa” beste kontu bat dela adierazi du.

Eztabaida amaituta, alkate jaunak bi bozketa egingo direla adierazi du: alde batetik, hondakinak biltzeko tasa bozkatuko da; eta,

tiene, sin olvidar que ha agotado también el remanente positivo que tenía, 1.000.000 €. Dice que esta situación y estos datos no son nada nuevo, porque era algo que ya se conocía y veia venir con un vertedero cerrado. En definitiva opina que es fácil decir que hay otras salidas, cuando en realidad no las hay. Tampoco admite que se diga que la situación viene de antes, cuando en el año 2011 se conocía cómo estaba el vertedero Sasieta en cuanto a cumplimiento de criterios ambientales y no se hizo nada, hasta que finalmente llega la necesidad perentoria y se plantea una impermeabilización imposible. Todo esto indica que hay que hay que mirar hacia adelante y empezar a pagar el servicio que se nos presta, y los planteamientos que para ello se hagan se tienen que ajustar a la realidad de la situación.

Iniciado un segundo turno de intervenciones, pide la palabra la Sra. Zabaleta (EH Bildu), para aclarar que cuando ha dicho que no hay relación entre el cobro en función de lo que se genera y la situación del vertedero, lo ha dicho por un cometario realizado por el portavoz del PSE-EE, Sr. Martín, con el objetivo de que no hay que confundir a la ciudadanía. Sigue diciendo que la tasa por recogida de residuos ha sido populista no solamente desde 2011 sino mucho antes, y entienden la necesidad existente de graduarla, y otra cosa distinta es el “agujero” de Sasieta.

Finalizado el debate, el Sr. Alcalde informa que el asunto se va a someter a votación en dos partes distintas: por una parte la tasa de

bestetik, udalaren gainerako zergak eta tasak bozkatuko dira.

Hondakinak biltzeko tasa bozkatuta, aldeko botoa eman dute Alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martin (PSE-EE) eta Nieves (PSE-EE) zinegotziek (7 boto aldeko); bestalde, aurkako botoa eman dute Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) eta Otegi (EH Bildu) zinegotziek (5 boto aurka), eta La Rosa zinegotzi jauna abstenitu egin da; horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Hasierako onarpena ematea **hondakinak biltzeko udal tasa** arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.

recogida de residuos; y por otra, el resto de impuestos y tasas municipales.

Sometida a votación la tasa por recogida de residuos, con los votos a favor del Sr. Alcalde y de l@s concejal@s Sr@s. Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martín (PSE-EE), y Nieves (PSE-EE), {7 votos a favor}, los votos en contra de los ediles Sr@s Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu), {5 votos en contra}, y la abstención del edil Sr. La Rosa (Irabazi), se acuerda:

**Primero.-** Aprobar inicialmente la siguiente modificación en la ordenanza fiscal reguladora de la **Tasa municipal por recogida de residuos;**

| | |
|---|---|
| **A epigrafea: Zaborra bildu eta ezabatzeko zerbitzua (€ / Hiruhilabeteko)** | **Epígrafe A: Servicio de recogida y eliminación de basuras. (€/trimestre)** |
| 1.- Etxetik datozen hondakinak<br>1.1. Etxeko zaborra 33,47 €<br>2.- Merkataritzatik, janari dendetatik, zerbitzuetatik eta ostalaritzatik datozen hondakinak: | 1.-Residuos de procedencia doméstica.<br>1.1Basuradoméstica 33,47 €<br>2.- Residuos de procedencia comercial, alimentación, servicios y de hostelería: |
| 2.1. Jatetxeak, janari zerbitzua duten establezimenduak, sukalderako prestaketa, elkarte Gastronomikoak eta antzeko beste establezimendu batzuk…………. 162,55 € | 2.1 Restaurantes, establecimientos que dispongan de servicio de comidas, elaboración de precocinados, sociedades gastronómicas y otros establecimientos similares……………………………. 162,55 € |
| 2.2. Tabernak, pub, garagardotegiak, kafetegiak, croissanteriak, txokolategiak, txurreriak<br>eta antzeko establezimenduak…..151,63 € | 2.2 Bares, pubes, cervecerías, cafeterías, croissanterías, chocolaterías, churrerías y otros establecimientos similares…….151,63 € |
| 2.3. Janari establezimenduak (fruteriak, harategiak, urdaitegiak, oilasko dendak, arrandegiak, izoztuak, janari dendak, okindegiak, gozotegiak, e.a…) | 2.3 Establecimientos de alimentación (fruterías, carnicerías, charcuterías, pollerías, pescaderías, congelados, tiendas de comestibles, panaderías, |

Urretxuko udala

| | |
|---|---|
| …..154,36 € | pastelerías, etc…) ……………………………………….154,36 € |
| 2.4. Supermerkatuak eta antzekoak, salmentarako azalera 400 m2 edo gehiago dutenak…………………………. 810,04 € | 2.4 Supermercados, y similares cuya superficie de su sala de ventas sea mayor o igual a 400m2……………………….810,04 € |
| 2.5. Hotelak, fondak, pentsioak eta antzekoak……………………….310,09 € | 2.5 Hoteles, fondas, pensiones y similares ……………………………………….310,09 € |
| 2.6. Merkataritza eta zerbitzuetako gainontzeko establezimenduak 57,37 € | 2.6 Resto de establecimientos comerciales o de servicios…………………………. 57,37 € |
| <u>3.- Industriatik datozen hondakinak</u><br>3.1. 5 langile baino gutxiago 131,14 €<br>3.2. 20 langile edo gutxiago 224,02 €<br>3.3. 100 langile edo gutxiago 281,40 €<br>3.4. 100 langiletik gora 561,43 € | <u>3.- Residuos de procedencia industrial</u><br>3.1 Inferior o igual a 5 trabajadores 131,14 €<br>3.2 Inferior o igual a 20 trabajadores 224,02 €<br>3.3 Inferior o igual a 100 trabajadores 281,40 €<br>3.4 Superior a 100 trabajadores 561,43 € |
| Jarduerarik gabeko lokalei hondakinen etxeko tarifa ezarriko zaie. | A los locales sin ningún tipo de actividad les será de aplicación la tarifa doméstica de residuos. |
| <u>Tarifak kudeatzeko eta aplikatzeko arauak:</u><br>1.Kobrantza hiru hilabetero egingo da. | <u>Normas de gestión y de aplicación de las tarifas</u>:<br>1. La cobranza se realizará trimestralmente. |
| 2.Ordaintzeko obligazioa derrigorrezkoa izango da herriko etxebizitzetako eta merkataritza eta industria establezimendu guztietako jabe eta okupatzaile guztientzat, eta inor ezingo da geratu, ez pertsona fisikorik, ez juridikorik, zerbitzu hau ordaintzetik salbuetsita. | 2. La obligación de contribuir será obligatoria para todos los propietarios y ocupantes de las viviendas de la localidad y establecimientos comerciales, industriales y de servicios, no pudiendo quedar ninguna persona física ni jurídica exenta de la obligación de pagar por este servicio. |
| 3. Edozein tituluren bitartez, etxebizitza baten –bertan bizi edo ez- edo jarduera komertzial, industrial edo zerbitzuetarako lokalen jabe edo okupatzaile diren pertsona fisiko edo juridiko guztiei eragiten die tasa honek. | 3. Esta Tasa alcanza a toda persona física o jurídica que, por cualquier título, sea propietaria u ocupante de alguna vivienda -viva en ella o no- o de locales para actividades comerciales, industriales o de servicios. |
| 4. Udalak zaborra biltzeko eskubideak kobratzeko bidezko ordainagiria luzatzen ez badie ere, herriko etxebizitzetako jabe eta okupatzaile guztiek Udalari erroldan sar ditzan jakinarazteko obligazioa dute. Etxe | 4. Todos los propietarios y ocupantes de las viviendas de la localidad, tienen la obligación, si por el Municipio no se les pasa el oportuno recibo para el cobro de derechos de recogida de basuras, de comunicar al Ayuntamiento que se les incluya en el Padrón. Los |

| | |
|---|---|
| berrietako jabeek, hilabeteko epean egin beharko dute aipatutako eskaera, etxebizitzaren jabe egiten direnetik hasita. | propietarios de nuevas viviendas deberán efectuar dicha solicitud en el plazo de un mes a partir del día de adquisición de la vivienda. |
| 5. Gehienez ere kobrantza denboraldiko azken lanegunean jakinarazi beharko dira bajak, hurrengo epealdian indar-eragina izan dezaten. Baldintza hori betetzen ez dutenek tasa ordaintzeko obligazioa izango dute. Denda, ostalaritza, industria eta zerbitzuetako baja eguna zergadunak udaletxean jardueraren baja jakinarazten duen eguna izango da. | 5. Las bajas deberán notificarse, a más tardar, el último día laborable del periodo de cobro a fin de que puedan surtir efecto en el próximo periodo. Quienes no cumplan este requisito estarán obligados al pago de la tasa. La fecha de baja en comercios, hostelería, industria y servicios será el día en que el contribuyente notifique la baja de la actividad en el Ayuntamiento. |
| 6. Zergadunaren obligazioa izango da Udalari edo, hala badagokio, enpresa esleipendunari jakinaraztea tasaren erroldan egin nahi dituen elementuen alta, baja eta aldaketak, tasaren kalkulua egiteko. | 6. Será obligación del contribuyente comunicar al Ayuntamiento o a la empresa adjudicataria, en su caso, las altas, bajas y modificaciones de los elementos que desee realizar en el padrón de la tasa para el cálculo de la misma. |
| **B epigrafea: Estolderia publikoaren zerbitzua** | **Epígrafe B: Servicio de alcantarillado público.** |
| 1.- Etxeko erabilera:<br>m3<9m3 0,24<br>>9 m3 0,42 | 1.- Uso doméstico:<br>m3<9m3 0,24<br>m3>9 m3 0,42 |
| 2.- Dendak<br>A mota 0,74<br>B mota 0,61 | 2.-Comercios<br>* Tipo A 0,74<br>* Tipo B 0,61 |
| 3.- Industriala 0,76 | 3.- Industrial 0,76 |
| 4.- Garajeak:<br>* Sare orokorreko ura baldin badu, garaje plaza bakoitzeko, gutxienez: 2,85 €<br>* Sare orokorreko urik ez badu, garaje plaza bakoitzeko, gutxienez: 2,18 € | 4. Garajes:<br>* Si posee agua de la red general, mínimo por cada plaza de garaje: 2,85 €<br>* Si no posee agua de la red general, mínimo por cada plaza de garaje: 2,18 € |
| Kobrantza hiru hilabetero egingo da. | La cobranza se realizará trimestralmente. |

**Bigarren.-** Aipatutako aldaketa jende aurrean

**Segundo.-** Someter a información publica

Urretxuko udala

jarri 30 eguneko epean. Epe hori igaro, eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin-betikotzat onartuko da, eta egindako aldaketaren testu oso-osoa argitaratuko da.

dicha modificación durante el plazo de 30 días. Transcurrido el mismo sin producirse reclamación alguna, esta aprobación devendrá definitiva, publicándose el texto íntegro de la modificación realizada

Ordenantza Fiskalen aldaketarako proposamenaren gainontzekoa botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute Alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu), Martín (PSE-EE) eta Nieves (PSE-EE) zinegotziek, {12 boto aldeko}, eta La Rosa (Irabazi) zinegotzia abstenitu egin da; horrenbestez, honako erabaki da:

Sometida a votación el resto de la propuesta de modificación de Ordenanzas Fiscales, con los votos a favor del Sr. Alcalde y de l@s concejal@s Sr@s. Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu), Martín (PSE-EE), y Nieves (PSE-EE), {12 votos a favor}, y la abstención del edil Sr. La Rosa (Irabazi), se acuerda:

**Lehena.-** Hasierako onespena ematea **udal-zergak** arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa honi, testuak oso-osorik ondoren idazten direlarik:

**Primero.-** Aprobar inicialmente la siguiente modificación de las ordenanzas fiscales reguladoras de los **Impuestos municipales,** cuyos textos integros se transcriben a continuación:

| ***ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA*** | ***ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES*** |
|---|---|
| **II ERANSKINA: HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZETARAKO ERREKARGUA**<br>**E)** Errekargua aplikatzeko kudeaketa-prozedura berezia.<br><br>Udalak, ofizioz, ohiko egoiliarrik inskribatuta ageri ez duten bizileku-erabilerako ondasun higiezinen titular izanik zerga honen subjektu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du. | **ANEXO II: RECARGO PARA VIVIENDAS DESOCUPADAS**<br>**E)** Procedimiento especial de gestión para la aplicación del recargo.<br><br>El Ayuntamiento elaborará de oficio una relación inicial de sujetos pasivos de este impuesto titulares de bienes inmuebles de uso residencial en los que no conste inscrita personal alguna como residente habitual. |

Zerrenda horretan sartuta dauden subjektu guztiei jakinaraziko zaie kasu bakoitzean onartzen den errekarguari lotuta bizileku-erabilerako ondasun higiezinen titulartzat sartu dituztela, behin-behinekoz; horrela, subjektu horiek egoki irizten diotena alegatu ahal izango dute, higiezina zer egoeratan dagoen behin betiko erabakitzearren, egiazko bizilekutzat erabiltzeari edota errekargua ez aplikatzeko baldintzak betetzeari dagokienez. Alegazioak aurkezteko epea 15 eguneko izango da, jakinarazpena egiten den unetik edo behin-behineko alta argitaratzen den unetik hasita.

**III. ERANSKINA: HOBARIAK**

Zergaren kuota osoaren gainean honako hobari hauek aplikatuko dira hauen alde:

-Familia ugariko titularitatea duten subjektu pasiboak, ohiko bizileku izaera duen ondasun higiezinari lotuta, betiere:

| | SARRERA GORDINAK | | |
|---|---|---|---|
| | 0-24.000 euros | 24.000-50.000 euros | 50.000-80.000 euros |
| Orokorra | 90% | 50% | 15% |
| Berezia | 90% | 70% | 40% |

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta dauden eraikuntzak, instalazioak edo obrak beti ere ikastetxeek bakar bakarrik irakaskuntza izaerako instalazioetan egindakoak. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hobaria:

- Zerga-oinarria, 60.000 € arte >> %50
- Zerga-oinarria 60.000 €tik gora > %25

Se procederá a notificar a cada uno de los sujetos incluidos en la relación anterior su alta provisional como titulares de bienes de uso residencial sometidos al recargo que en su caso se apruebe, para que aleguen lo que estimen oportuno en orden a determinar definitivamente la situación del bien inmueble en cuanto a su uso residencial efectivo o la concurrencia de supuestos de no aplicación del recargo. El plazo para presentar alegaciones será de 15 días a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la notificación o publicación del alta provisional.

**ANEXO III: BONIFICACIONES**

Se aplicarán las siguientes bonificaciones de la cuota íntegra del impuesto a favor de:

-Aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa respecto del inmueble que tenga la consideración de vivienda habitual:

| | INGRESOS BRUTOS | | |
|---|---|---|---|
| | 0-24.000 euros | 24.000-50.000 euros | 50.000-80.000 euros |
| General | 90% | 50% | 15% |
| Especial | 90% | 70% | 40% |

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

Bonificación a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de interés o público ejecutadas en cerntros escolares y exlcusivamente en instalaciones de carácter docente.. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

Bonificación:

- Base imponible hasta 60.000 € >>>>>> 50%
- Base imponible a partir de 60.000 € >>25%

**Bigarren.-** Aipatutako aldaketa jende aurrean jarri 30 eguneko epean. Epe hori igaro, eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin-betikotzat onartuko da, eta egindako aldaketen testu oso-osoa argitaratuko da.

**Segundo.-** Someter a información pública dicha modificación durante el plazo de 30 días. Transcurrido el mismo sin producirse reclamación ninguna, esta aprobación devendrá definitiva, publicándose el texto íntegro de las modificaciones realizadas.

**Hirugarren.-** Hasierako onespena ematea **udal tasak** arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa honi

**Tercero.**- Aprobar inicialmente la siguiente modificación en las ordenanzas fiscales reguladoras de las **Tasas municipales**

| | |
|---|---|
| **HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUAREN, ZORUPEAREN EDO LURGAINAREN BAKARREKO ERABILERAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA.**<br><br>**1. artikulua.**<br><br>2. Ondorio horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:<br><br>b)Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak.<br><br>**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA**<br><br>**I epigrafea: Ibilgailuak ibilgetzea, erretiratzea eta zaintzea** | **ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL REGULADORA DE LA TASA POR UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LAS VIAS PÚBLICAS MUNICIPALES, EN FAVOR DE EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE SUMINISTRO**<br><br>**Artículo 1**<br><br>2. A estos efectos, tendrán la consideración de empresas explotadoras de servicios de suministro:<br><br>b) Las empresas que presten servicios de telecomunicaciones disponibles al público mediante la utilización, total o parcial, de redes públicas de telecomunicaciones instaladas con utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales.<br><br>**ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS**<br><br>**Epígrafe I: Inmovilización, Retirada de vehículos y custodia de los mismos**. |

| | |
|---|---|
| 1.- Ibilgailuak erretiratzea<br>- Astelehenetik-ostiralera erretiratzea<br>(asteleheneko 8:00etatik ostiraleko 19:59era):<br>108,00 €<br>- Gauean/jai egunetan/asteburuetan erretiratzea (ostiraleko 20:00etatik asteleheneko 7:59era):<br>145,00 €<br>- Irteera, erretiratu gabe, astelehena-ostirala (asteleheneko 8:00etatik ostiraleko 19:59era):<br>65,00 €<br>- Irteera, erretiratu gabe, gau/jaieg/asteburu (ostiraleko 20:00etatik asteleheneko 07:59era):<br>103,00 €<br><br>**P epigrafea: Labeaga aretoa erabiltzea**<br>- Orduko, teknikariarekin: 30,00<br>- Orduko, aretoko pertsonalarekin: 18,00<br><br>Udal interesa duten talde kulturalek, sozialek eta kiroletakoek eta ikastetxeek erabiltzen dutenean, %100eko hobaria izango dute.<br><br>**R epigrafea: Kultur etxeko tailerrak eta ikastaroak**<br>- Pintura ikastaroa, hilean: 15,00<br>- Marrazki ikastaroa, hilean: 15,00<br>- Mineralogia Asteko txangoa:<br>Helduak 40,00<br>Haurrak (16 urte arte) 30,00<br><br>Kobrantza hilero egingo da, hilaren lehenengo astean zehar, eta klaseetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aipatutako egunetan zehar ordainduta izatea.<br><br>Beste tailer batzuk:<br>Kultur etxeko tailerrak:<br>A.- I mota: 10 €<br>B.- II mota: 20 €<br>C.- III mota: 30 € | 1.- Retirada de vehículos.<br>- Retirada hora lunes-viernes<br>(desde las 8:00 del lunes hasta las 19:59 viernes)<br>108,00 €<br>- Retirada nocturno/festivos/fin de semana<br>(desde las 20:00 viernes hasta las 07:59 del lunes):<br>145,00 €<br>- Salida sin retirada, lunes-viernes<br>(desde las 8:00 del lunes hasta las 19:59 viernes)<br>65,00 €<br>- Salida sin retirada, noct./fest./fin de semana<br>(desde las 20:00 viernes hasta las 07:59 del lunes):<br>103,00 €<br><br>**Epígrafe P: Utilización salón Labeaga.**<br>- Por cada hora, con técnico: 30,00<br>- Por cada hora, con personal de sala: 18,00<br><br>Cuando la utilización se realice por agrupaciones culturales, sociales y deportivas de interés municipal y centros educativos, se bonificaran en un 100%.<br><br>**Epígrafe R: Talleres y cursos casa de cultura.**<br>- Curso pintura, al mes: 15,00<br>- Curso dibujo, al mes: 15,00<br>- Excursión organizada feria Mineralogía:<br>Adultos 40,00<br>Infantil (hasta 16 años) 30,00<br><br>El cobro se realizará por meses anticipados, durante la primera semana del mes, siendo indispensable para asistir a las clases que se haya realizado el pago durante la citada fecha.<br><br>Otros talleres:<br>Talleres Casa de Cultura:<br>A.- Tipo I: 10 €<br>B.- Tipo II: 20 €<br>C.- Tipo III: 30 € |

Urretxuko udala

D.- IV mota: 40 €
E.- V mota: 50 €

Tailerren motari dagokion sailkapena arloko teknikariek egindako txosten bidez egingo da, betiere kostuaren, iraupenaren eta tailerreko irakasle profesionalaren egiaztapenaren arabera.

**S epigrafea: Ikuskizunetako eta beste saio batzuetako sarrerak**

- Helduentzako ikuskizunak: 10,00
- Haurrentzako ikuskizunak: 5,00
- Gazte Txartela: 7,00
- Antzerki denboraldiko abonua: 65,00
- Haurrentzako DVD saioa Labeaga: 1,00

**V epigrafea: Udal ondasun jakin batzuen erabilera**

- Karpa, eguneko 50,00
- Karpa muntatzea eta desmuntatzea 1.100,00
- Hesi metalikoak, unitatea: 3,10
- Ureztapen mahuka bakoitzeko/eguna: 4,65
- Kamioia, orduko: 60,65
- Nissan, orduko: 36,85
- Oholtza: Muntatzea eta desmuntatzea: 80,80
- Oholtza, eguneko: 60,65
- Puskatzeko mailua, eguneko: 17,20
- Sorgailua, soldadura ekipoa, belarra moztekoa eta beste batzuk: 11,55
  Eguneko: 25,20
  Orduko: 3,50
- Aluminiozko eskailera, orduko: 2,25
- Saneamendu makilak: unitat/ordua: 1,25
- Kamioaren txoferra, orduko: 24,10
- Obretako peoia, orduko: 21,10
- Obretako ofiziala, orduko: 23,35
- Kaiolak, unit/eguna: 1,10
- Aulkiak, unit/eguna: 0,70
- Aulki hautsi bakoitza: 13,90

Udal interesa duten talde kulturalek, sozialek eta kiroletakoek eta ikastetxeek erabiltzen dutenean,

D.- Tipo IV: 40 €
E.- Tipo V: 50 €

La clasificación de los talleres por tipo se realizará mediante informe realizado por los técnicos del área correspondiente, de acuerdo al coste, la duración y la acreditación profesional del profesor del taller programado.

**Epígrafe S: Entradas a espectáculos y otras sesiones**

- Espectáculos para adultos: 10,00
- Espectáculos infantiles: 5,00
- Gazte Txartela: 7,00
- Abono temporada teatro: 65,00
- Sesión infantil DVD Salón Labeaga: 1,00

**Epígrafe V: Utilización y uso de determinados bienes municipales**.

- Carpa, por día 50,00
- Montaje y desmontaje carpa 1.100,00
- Vallas metálicas, unidad: 3,10
- Mangueras de riego, por manguera/día: 4,65
- Camión, por cada hora: 60,65
- Nissan, por cada hora: 36,85
- Tablado: Montaje y desmontaje: 80,80
- Tablado, por día: 60,65
- Martillo rompedor, por día: 17,20
- Generador, equipo de soldadura, cortacésped y otros: 11,55
  Por día: 25,20
  Por hora: 3,50
- Escalera de aluminio, por hora: 2,25
- Cañas de saneamiento: unidad/hora: 1,25
- Coste hora chofer camión: 24,10
- Coste hora peón obras: 21,10
- Coste hora oficial obras: 23,35
- Jaulas, unidad/día: 1,10
- Sillas, unidad/día: 0,70
- Por cada silla rota: 13,90

Cuando la utilización se realice por agrupaciones culturales, sociales y deportivas de interés municipal y

%100eko hobaria izango dute.

**X epigrafea: Auzobusa**

10 bidaiko abonua: 0,01

Salbuetsita daude ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

a) 5 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak
b) Desgaitasuna duten pertsonak, mugikortasunaren atalean gutxienez 7 puntu dutenak
c) %65 edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak

Salbuespena lortzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Urretxun erroldatuta egotea
b) Eskaera-orria betetzea
c) NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia aurkeztea, eta hala badagokio, elbarritasun egiaztagiria.

**Y EPIGRAFEA: Hirigintza zerbitzuen prestazioa**

Proiektua, Oinarriak eta Kontzertazio Batzordearen Estatutuak 600 €

Birpartzelazio proiektua:
- Jabe kopurua 10 lagun edo gutxiago: 1.000 €
- Jabe kopurua 10 lagunetik gora: 1.200 €

Jarduketa Urbanizatzailearen programa:
- Jabe kopurua 10 lagun edo gutxiago: 600 €
- Jabe kopurua 10 lagunetik gora: 1.200 €

Birpartzelazio prozedura laburrak: 600 €

Derrigorrezko desjabetze espedientea, onuraduna Herri Administrazioa ez denean: 600 €

Aurri-deklarazio espedientea, alderdi batek eskatuta: 1.200 €

centros educativos, las tarifas se bonificaran en un 100%

**Epígrafe X: Auzobusa.**

Bono 10 viajes: 0,01

Estarán exentas las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que tengan 5 años o menos o 65 años o más.
b) Personas con discapacidad, con al menos 7 puntos en el apartado de movilidad.
c) Personas con una discapacidad del 65% o superior.

Para poder acogerse a la exención, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar empadronado en Urretxu.
b) Cumplimentar la instancia de solicitud.
c) Aportar fotocopia del DNI, NIE o pasaporte y en su caso, certificado de minusvalía.

**EPIGRAFE Y: Prestación de Servicios Urbanísticos**

Proyecto, Bases y Estatutos de la Junta de Concertación 600 €

Proyecto de reparcelación
.- Número de propietarios igual o menor a 10 1.000 €
- Número de propietarios superior a 10 1.200 €

Programa de Actuación Urbanizadora
- Número de propietarios menor o igual a 10 600 €
- Número de propietarios superior a 10 1.200 €

Procedimientos abreviados de reparcelación 600 €

Expediente de expropiación forzosa cuando el Beneficiario no sea la Administración Pública 600 €

Expedientes de Declaración de Ruina a instancia de parte 1.200 €

| | |
|---|---|
| Espedientearen tramitazioa hasteko eskaerarekin sortzen eta kitatzen da behin behingoz tasa. Dagokion espedientearen gainean azken ebazpena egiten denean bihurtzen da kitapena behin betiko. | La tasa se devenga y liquida provisionalmente con la solicitud de inicio de tramitación de expediente. La liquidación deviene definitiva al recaer la última resolución municipal sobre el expediente que proceda. |
| Jabe bat baino gehiago duten kitapenak kuota proportzionatuak banaketa indibidualaren bitartez kitatuko dira, proiektuan jasota dauden modura. | Las liquidaciones con más de un propietario se liquidarán mediante reparto individualizado de cuotas proporcionadas tal y como vienen recogidas en el Proyecto. |
| Tasetan ez dira sartzen Aldizkari Ofizialetan eta egunkarietan egindako argitalpen gastuak, hirigintza araudia betez egindakoak, eta horiek benetako balioagatik kitatuko dira. | Las tasas no incluyen los gastos de publicación en Boletines Oficiales y periódicos que se hayan realizado en cumplimiento de la normativa urbanística, que se liquidarán por su valor real. |
| Dagokion ebazpena eman aurretik eskatzaileak atzera eginez gero, epigrafe honetan ezarritako zenbatekoen %50 kitatuko da, betiere udal jarduera benetan hasita baldin badago. | En caso de desistimiento formulado por el solicitante antes de adoptada la resolución pertinente, se liquidará el 50% de las cantidades señaladas en este epígrafe siempre que la actividad municipal se hubiera iniciado efectivamente. |
| **UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA** | **ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL** |
| **A epigrafea: Hesiak, edukiontziak, garabiask, aldamioak, eskorrak, astoak eta beste batzuk.**<br>- Metro lineal edo zatiko, egunekoa: 1,60 | **Epígrafe A: Vallas, contenedores, grúas, andamios, puntales, ansillas y demás.**<br>- Por metro lineal o fracción al día: 1,60 |
| **C epigrafea: Postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizunak eta antzekoak**<br>11.- Jai Nagusiak, kalez kaleko salmenta postuak.<br>- Metro linealeko edo zatiko, eguneko: 15,00<br>- Postua ibilgailuarekin, eguneko: 76,50 | **Epígrafe C: Puestos, Barracas, Casetas de Venta, Espectáculos y similares**.<br>11.- Fiestas patronales, puestos de venta ambulante.<br>- Por metro lineal o fracción, al día: 15,00<br>- Puesto con vehículo, por día: 76,50 |
| 12.- Mineralogia Feria, feriako postuak:<br>- Metro linealeko edo zatiko, eguneko: 15,00 | 12.- Feria Mineralogía, puestos feria:<br>- Por metro lineal o fracción, al día: 15,00 |
| Kaleko salmenta postua udal interesa duten talde kulturalek, sozialek eta kiroletakoek eta ikastetxeek beraien jardueraren finantziaziorako jartzen dutenean, %100eko hobaria izango dute tarifek. | Cuando el puesto de venta ambulante se establezca por agrupaciones culturales, sociales y deportivas de interés municipal y centros educativos para la |

**<u>D epigrafea: Udal azoka eta azoka txikien zerbitzuak.</u>**
Bertako produktuen salmenta: metro karratuko eta eguneko: 0,22 €

Postuak: metro karratu eta eguneko: 0,60 €

Argindarraren hartunea (urteko tarifa): 5,25 €

**<u>E epigrafea: Bide publikoko kioskoak</u>**
Bide publikoan jartzen diren kioskoak, honako hauek saltzeko:
1.- Egunkariak, aldizkariak, ipuinak, liburuak eta antzekoak
-Kiosko bakoitzeko, urteko: 160

**<u>F epìgrafea: Espaloi pasabideak edo ibilgailuen sarrera, ibiak eta gune publikoaren erretserba</u>**
a) <u>Espaloi pasabideak edo ibilgailuen sarrera:</u>
1.- 5 ibilgailu edo gutxiago sartzeko lokalak eta garajeak.
- Sarrerako atearen zabaleraren metro lineal bakoitzeko edo zatiko, urtean: (gutxienez 2 metro)……………………………………………30,00

2.- 5 ibilgailu baino gehiago sartzeko lokalak eta garajeak.
- Sarrerako atearen zabaleraren metro lineal bakoitzeko edo zatiko, urtean:
(gutxienez 3 metro) 32,00
-.Garaje plaza bakoitzeko, urtean: 11,00

3.- Erakunde industrialak eta konponketa garajeak:
-Metroko edo zati bakoitzeko, urtean: 36,00
(gutxienez 4 metro)

b) <u>Pasabideak:</u>
1.- Erabilera partikularreko garajeak (metroko edo zatiko, urtean) 27,00
(gutxienez 2 metro)

financiación de su actividad, las tarifas se bonificaran en un 100%.

**<u>Epígrafe D: Servicios de mercado y mercadillos municipales</u>**.
Venta de productos del país: por cada metro cuadrado y día: 0,22 €
Puestos: por cada metro cuadrado y día: 0,60 €
Toma de corriente eléctrica (tarifa anual): 5,25 €

**<u>Epígrafe E:Quioscos en la vía pública</u>**.
Quioscos que se instalen en la vía pública para la venta de:
1.- Periódicos, revistas, cuentos, libros y similares.
- Por quiosco y año: 160

**<u>Epígrafe F: Pasos de acera o entrada de vehículo, vados y reservas de espacio público.</u>**

a) <u>Pasos de acera o entrada de vehículo:</u>

1.- Locales o garajes que alberguen hasta 5 vehículos.
* Por metro lineal de anchura de entrada de la puerta o fracción al año: 30,00
(mínimo 2 metros)

2.- Locales o garajes que alberguen más de 5 vehículos.

* Por metro lineal de anchura de entrada de la puerta o fracción al año: 32,00
(mínimo 3 metros)
* Por plaza de garaje al año: 11,00

3.- Entidades industriales y garajes de reparación:
*Por metro lineal o fracción, al año 36,00
(mínimo 4 metros)

b) <u>Vados:</u>
1.- Garajes de uso o servicio particular (metro lineal o fracción/año) 27,00
(mínimo 2 metros)

| | |
|---|---|
| 2.- Garajeak edo establezimendu komertzialak eta industrialak (metroko edo zatiko, urtean 57,00 (gutxienez 4 metro)<br><br>3.- Abeltzaintza edo nekazal erabilera duten lokalak (metroko edo zatiko, urtean) 19,00<br><br>Pasabidetzat hartzen da lokaletara eta etxebizitzetarako sarbidea errazten duen espazio erretserba, ibilgailuak aparkatzeko debekuarekin.<br><br>Pasabideari dagokion zenbatekoaren kitapena espaloietako pasabideei edo ibilgailuen sarbideari dagokion zenbatekoaren kitapenarekin batera egingo da.<br><br>c) <u>Espazio erretserbak</u><br><br>1.- Erretserbak hartzen duen errepideko metro lineal bakoitzeko edo zatiko,<br>Urtean: 13 €<br>2.- Noizbehinkako beharretarako espazio erretserba, (ml bakoitzeko, eguneko) 1,60 €<br><br>Espazio erretserbatzat hartzen da bide publikoan espazio erretserba egitea, ibilgailuak aparkatzeko debekuarekin, pasabideaz apartekoa. | 2.- Garajes de uso comercial o industrial (metro lineal o fracción/año) 57,00<br>(mínimo 4 metros)<br><br>3.- Locales de uso ganadero o agrícola (por ml o fracción al año) 19,00<br><br>Se entiende por vado la reserva de espacio para facilitar el acceso de los vehículos a los locales y viviendas con prohibición de estacionamiento y aparcamiento.<br><br>La liquidación del importe correspondiente al vado se realizará junto con la liquidación del importe correspondiente a los pasos de acera o entrada de vehículo.<br><br>c) <u>Reservas de espacio:</u><br>1.- Por cada metro lineal o fracción de calzada que alcance la reserva,<br>al año: 13 €<br><br>2.- Por reserva de espacio para necesidades ocasionales (por ml, al día) 1,60 €<br><br>Se entiende por reserva de espacio, la reserva de espacio en vía pública con prohibición de estacionamiento y aparcamiento, independiente del vado. |

**Laugarren.-** Aipatutako aldaketa jende aurrean jarri 30 eguneko epean. Epe hori igaro, eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin-betikotzat onartuko da, eta egindako aldaketen testu oso-osoa argitaratuko

**Cuarto.-** Someter a información publica dicha modificación durante el plazo de 30 días. Transcurrido el mismo sin producirse reclamación alguna , esta aprobación devendrá definitiva, publicándose el texto íntegro de las modificaicones realizadas

<u>**8.- Toki mailako biktimen errekonozimendua eta oroigarri jarduketak bultzatzeko aitorpen instituzionala.**</u>

<u>**8.- Declaración institucional para el impulso de actuaciones memoriales y de reconocimiento a las víctimas de ámbito local.**</u>

Alkate jaunak azaldu duenez, gai honen abiapuntua Lehendakaritzak eta Bakegintza eta Bizikidetza Idazkaritzak deitutako bilera izan da; bilera horretan alkate bakoitzari bere udalerrian izandako biktimak jasotzen dituen liburuxka eman zitzaion.

Jarraian proposamena irakurri du, ondoren hitzez hitz jasota dagoen testua, Joan zen urriaren 27an Bozeramaile Batzordeak egindako bileran onetsitako testua hain zuzen ere:

***HERRIKO EREMUAN BIKTIMAK AITORTZEKO MEMORIA JARDUERAK BULTZATZEKO URRETXUKO UDALAK EMANGO DUEN LAGUNTZAREN INGURUKO ADIERAZPENA***

*German Gonzalez Lopez jauna eta Jose Mari Etxaniz Maiztegi jauna Urretxuko biktima gisa aitortuak izan dira ofizialki Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak oraindik orain egindako “Biktimen Udal Erretratuak” txostenean.*

*Txosten horretan udalerri guztiak animatzen dira biktima horiek guztiak omentzeko aitorpen eta ekitaldi publiko eta instituzionalak egitera. Irailaren 4an egindako bileran, EAEko Lehendakariak deialdi bat egin zigun udal esparrutik politika memorialak sustatzeko, ahalik eta kontsensu zabalena bultzatuz, eskuzabaltasunez begiratuz, eta denok batera bide bat eginez, indarkeriaren injustizia eta biktima guztien duintasuna aitortzeko erantzukizuna betetzeko bidetik, alegia.*

El Sr. Alcalde explica que el punto de partida de este asunto lo ha sido la reunión convocada por Lehendakartiza y la Secretaría de Paz y Convivencia, en la que a cada alcalde se le trasladó el cuaderno que recoge las víctimas habidas en su municipio.
Seguidamente procede a dar lectura a la propuesta, cuyo texto se transcribe, indicando que la misma ha sido informada favorablemente por la Junta de Portavoces celebrada el pasado 27 de octubre:

***DECLARACIÓN EN TORNO A LA CONTRIBUCION DEL AYUNTAMIENTO DE URRETXU AL IMPULSO DE ACTUACIONES MEMORIALES Y DE RECONOCIMIENTO A LAS VICTIMAS EN EL AMBITO LOCAL***

*D. Germán Gonzalez López y D. Jose Mari Etxaniz Maiztegi han sido reconocidos oficialmente como víctimas en Urretxu en el reciente informe “Retratos Municipales de las Víctimas” elaborado por la Secretaria General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco.*

*En este informe se anima a todos los municipios a realizar reconocimientos y actos públicos e institucionales de homenaje a todas estas víctimas. En la reunión celebrada el día 4 de septiembre, el Lehendakari de la CAPV nos hizo un llamamiento para promover políticas memoriales desde el ámbito municipal, promoviendo el más amplio consenso posible, con altura de miras y generosidad y recorriendo juntos un camino que nos permita cumplir con la responsabilidad de reconocer la injusticia de*

*Memoriaren Politika publikoa batzuetan eztabaidatua izan da, eta gainera, batzuk zalantzan jartzen dute horren egokitasuna. Datu objektiboak eurak dira atzera begiratzera gonbidatzen gaituztenak, iraganaren memoria kritikoa egiteko komenigarritasuna esplikatzen dutenak:*

*- Diktadura frankistaren erdian ETA jaio zenetik, 1960. urtetik, ETAk eta antzeko beste erakunde batzuk 850 hilketa inguru egin dituzte.*
*- Eskuin muturreko taldeek edo parapolizialek, Batallon Vasco Español, GAL eta beste batzuk, 70 hilketa inguru.*
*- Legez kontrako indarkeria polizialaren ekintzek 95 hildako utzi dituzte, gehienak 1982. urtea baino lehen.*

*Izen-abizena duten pertsonak dira, eta horiei zauritu eta kaltea eragindako beste zerrenda luze bat erantsi diezaiekegu, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketaren modu ezberdinen bidez eragindako kalte zerrenda luze bat.*

*Datuak pertsonak dira eta beraiek hitz egiten dute. Horixe da aurrean daukagun errealitate objektiboa. Horiek dira memoriaren politika egiteko "arrazoi pertsonalak".*

*Erantzukizun instituzionala daukagu errealitate honen aurrean. Lehendakariak badauka, eta baita ere alkate eta zinegotzi bakoitzak. Betebehar etiko bat daukagu historiaren*

*la violencia y la dignidad de todas las víctimas.*

*La política pública de Memoria es en ocasiones discutida y hay, incluso, quien llega a poner en duda su pertinencia. Son los propios datos objetivos los que nos invitan a mirar hacia atrás, los que explican la conveniencia de una memoria crítica del pasado:*

*-Desde el nacimiento de ETA, en medio de la dictadura franquista, desde 1960, ETA y otras organizaciones afines han provocado cerca de 850 asesinatos.*
*-Grupos de extrema derecha o parapoliciales como el Batallón Vasco Español, GAL y otros, alrededor de 70 asesinatos.*
*-Las acciones de violencia policial ilegítima han causado en torno a 95 víctimas mortales, la mayor parte antes de 1982.*

*Son personas con nombre y apellidos a las que podemos añadir una larga lista de personas heridas o afectadas, una extensa relación de daños por diferentes formas de terrorismo, violencia y vulneración de los derechos humanos.*

*Los datos son personas y hablan por sí mismos. Esta es la realidad objetiva a la que nos enfrentamos. Estas son las "razones personales" para hacer política de memoria.*

*Tenemos una responsabilidad institucional frente a esta realidad. La tiene el Lehendakari y la tiene cada Alcalde y cada concejal y concejala. Tenemos un deber ético ante la historia, ante las propias*

Urretxuko udala

*aurrean, biktimen eta euren familien aurrean, baita belaunaldi berrien aurrean ere. Ez du inolako zalantzarik gelditu behar beste pertsona bat hiltzea injustiziarik larriena dela eta eman daitekeen okerrik okerrena.*

*Gizatasun betebehar bat daukagu. Biktimek jakin egin behar dute ados gaudela esatean onartezina izan zela sufritu zuten hura. Jakin egin behar dute jabetzen garela euren sufrimenduaz, eta gure aitorpena, errespetua eta elkartasuna adierazten diegula.*

*Konpromiso demokratiko bat daukagu bizikidetzarekin. Memoriaren politika bizikidetza demokratikoaren politika bat da. Finkaturik utzi behar du ezberdintasun eta helburu politikoak bide demokratikoetatik soilik erabakitzen eta defendatzen direla.*

*Pedagogia betebehar bat daukagu etorkizunerako. Belaunaldi berriei jasota utziko dien mezu bat mezu bat partekatu behar dugu: pertsonen giza duintasuna, bizitzeko eskubidea eta giza eskubideak xedaezinak dira. Ez dago inongo arrazoirik giza duintasunaren balorearen gaindik jar daitekeenik, balore absolutua balitz bezala. Giza duintasuna absolutu etiko bat da.*

*Mila arrazoi baino gehiago ditugu atzera begira eta iraganaren memoria kritikoa egiteko. Biktimen oroimena bizirik mantenduko duen memoria eta giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa proiektatuko duena, bereziki pertsonen bizitzaren eta duintasunaren eskubidea. Iraganean jasandako indarkeriaren aurrean hausnarketa kritikoa bultzatuko duen memoria bat.*

*víctimas y sus familias y ante las nuevas generaciones. No debe quedar ninguna duda de que matar a otra persona es la más grave de las injusticias y el peor error posible.*

*Tenemos un deber de humanidad. Las víctimas deben saber que estamos de acuerdo en que lo que padecieron fue inaceptable. Deben saber que somos conscientes de su sufrimiento y que les expresamos nuestro reconocimiento, respeto y solidaridad.*

*Tenemos un compromiso democrático con la convivencia. La política de memoria es una política de convivencia democrática. Ha de dejar establecido que las diferencias y los objetivos políticos se dirimen y defienden exclusivamente por vías democráticas.*

*Tenemos un deber de pedagogía para el futuro. Debemos compartir un mensaje que deje constancia a las nuevas generaciones: la dignidad humana de las personas, el derecho a la vida y los derechos humanos son indisponibles. Ninguna causa puede situarse por encima del valor de la dignidad humana como si fuera un valor absoluto. La dignidad humana es un absoluto ético.*

*Tenemos más de mil razones para mirar hacia atrás y hacer memoria crítica del pasado. Una memoria que mantenga vivo el recuerdo de las víctimas y que proyecte un compromiso definitivo con los derechos humanos, muy especialmente el derecho a la vida y la dignidad de las personas. Una memoria que impulse una reflexión crítica frente a la violencia padecida en el pasado.*

Urretxuko udala

Biktima baten erretratuak pertsona jakin bat agertzen du, izen-abizenak, familia, lagunak, historia, ametsak eta proiektuak dituen pertsona. Eskuratu diguten dokumentua Urretxun bidegabe hildako bi biktima horien bakoitzaren sufrimenduaren giza erretratua da, errepikatu behar ez den eta ahaztu behar ez den oroigarria da.

Dena den, eta egiteko lan ikaragarria dagoen arren, ez gara hutsetik abiatu.

2013ko martxoaren 14an, Eusko Legebiltzarreko lau talde haundiek, EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta PP taldeek, akordio bat lortu zuten eta lur etikoaren oinarrizko printzipioa euren gain hartu zuten, xumea bezain esanguratsua:

"Bakegintzak eta bizikidetzak indarkeriaren injustizia aitortzea eskatzen dute, egindako kaltearen eta biktimen duintasunaren aitorpena, guztiak ere egia, justizia eta konponbidearen eskubidea merezi dutenak".

Akordio hau oinarri izan liteke elkarrekin aurrera egiteko. Aurrera egitea indarkeriaren injustizia aitortzea eta biktima guztiak aitortzea baita. Azaroaren 10a, Memoriaren eguna, aukera bat da memoria kritiko eta eraikitzaile baten Bidean topo egiteko.

Urrats bat eman dugu. Legez kontrako polizia-indarkeriak edo Batallon Vasco Español taldeak, GALek eta antzeko erakundeek eragindako hildakoek jasandako injustizia

El retrato de una víctima revela a una persona concreta, con nombre, apellidos, familia, amigos, historia, sueños y proyectos. El documento que nos han entregado es el retrato de los rostros humanos del sufrimiento de cada una de las dos víctimas injustamente asesinadas en Urretxu,es un recordatorio de lo que no debe repetirse ni olvidarse.

De todas formas, pese a que hay una ingente cantidad de trabajo por realizar, no partimos de cero.

El 14 de marzo de 2013, los cuatro grandes grupos del Parlamento Vasco, EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE y PP alcanzaron un acuerdo y asumieron el principio básico del suelo ético, tan sencillo como relevante:

"La paz y la convivencia requieren el reconocimiento de la injusticia de la violencia, el reconocimiento del daño causado, y la dignidad de las víctimas, todas ellas merecedoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación."

Este acuerdo puede servirnos de base para avanzar juntos. Porque avanzar es reconocer la injusticia de la violencia y reconocer a todas las víctimas. El 10 de noviembre, día de la Memoria, es una oportunidad para encontrarnos en el camino de una memoria crítica y constructiva.

Hemos dado un paso. Todas y todos estamos en condiciones de reconocer la injusticia que padecieron las víctimas mortales de una violencia policial ilegítima o las que provocaron el Batallón Vasco

Urretxuko udala

*aitortzeko baldintzetan gaude denok.*

*Baina beharrezkoa da aurrera egitea. Urrats haundi bat emana izango dugu denok batera aitortzen dugunean ETAk eta antzeko erakundeek eragindako biktimek jasan duten indarkeriaren injustizia. Beste urrats bat emango dugu denok bat egiten dugunean biktima guztien aitorpen integratzaile batean, zein motatako indarkeriak eragin duen alde batera utzita.*

*Biktima bakoitzean pentsatu behar dugu. Banan banan, hildako biktima bakoitzaren familiak konponezineko injustizia jasan du, eta horrek herritarren eta ordezkaritza gertukoena den Udalaren inplikazio zintzoa eta gertukoa eskatzen du.*

*Ondasun preziatuena den bizitza bidegabe bortxatua izan zuten pertsonekiko eta horien familiekiko enpatia eta elkartasuna irudikatzen du Memoriaren Politika publikoak.*

*Memoriaren politikak ahaztea ekiditen du eta berriro ez errepikatzeko konpromiso bat da. Herritarren kontzientzian eragitea dakar, inongo arrazoirik ez dagoela, balore absolutua balitz bezala, giza duintasunaren balorearen gaindik jartzeko.*

*Hori guztia ikusirik, Urretxuko Udalbatzak ondorengo adierazpena onartzea erabakitzen du:*

*Español, el GAL y organizaciones similares.*

*Pero es necesario avanzar. Habremos dado un gran paso cuando todas y todos coincidamos en reconocer la injusticia de la violencia que han padecido las víctimas producidas por ETA y organizaciones similares. Daremos otro paso cuando todas y todos coincidamos en un reconocimiento integrador de todas las víctimas, al margen del signo de la violencia que las haya producido.*

*Debemos pensar en cada víctima. Una a una, cada familia de una víctima asesinada ha padecido una injusticia irreversible que demanda una implicación honesta y de cercanía de la ciudadanía y de su representación más cercana, su Ayuntamiento.*

*La política pública de memoria representa un ejercicio de empatía y solidaridad con aquellas personas y sus familiares que sufrieron injustamente la violación del bien más preciado, la vida.*

*La política memorial evita el olvido y es un compromiso de no repetición. Implica promover la conciencia ciudadana de que ninguna causa o razón puede situarse, como si fuera un valor absoluto, por encima del valor de la dignidad humana.*

*A la vista de todo ello, la Corporación Municipal de Urretxu acuerda aprobar la siguiente Declaración:*

*Los representantes municipales de Urretxu*

*Urretxuko udal ordezkariok berretsi egiten dugu bakean eta askatasunean bizikidetzaren alde lan egiteko konpromisoa, eta Urretxuko bizilagunei dei egiten diegu Udalak edo beste herritar talde batzuek biktimak aitortzeko antola ditzaketen memoria jardueretan parte har dezaten.*

*nos ratificamos en nuestro compromiso de trabajar por una convivencia en paz y libertad y hacemos un llamamiento a los vecinos y vecinas de Urretxu para que tomen parte en las actividades memoriales y de reconocimiento a las víctimas que se puedan organizar próximamente por el Ayuntamiento u otros colectivos ciudadanos.*

Irakurketa amaituta, alkate jaunak aditzera eman du gai hau hasiera gisa planteatzen dela, abiapuntua, sentsibilizazio ezberdineko jendearen artean arlo honetan zerbait egiteko asmoz, eta ilusioz beterik bide bati hasiera ematea. Esan du gainera, adierazpen hau azaroaren 10a oroitzeko baino gehiago, Urretxun izandako biktimak aitortzeko proposatu dela, itzaletan egon ezin diren biktimak.

Finalizada la lectura, el Sr. Alcalde indica que se plantea este asunto como el principio, el punto de partida, para tratar de hacer algo en este campo entre gente de distintas sensibilidades e iniciar un camino con ilusión. Añade que se plantea esta declaración, no tanto para conmemorar el día 10 de noviembre, sino para reconocer a dos víctimas habidas en Urretxu, víctimas que no pueden estar en la sombra.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Martin jaunak (PSE-EE) azaldu du aurkako botoa emango dutela, izan ere Urretxun bi biktima egon arren, adierazpen bat prestatzen ari delako PSE-EE eta EAJ/PNV alderdien artean, eta haren zain egotearen alde daude.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. Martín (PSE-EE) expone que van a votar en contra, porque a pesar de que, efectivamente, hay dos victimas en Urretxu, se está elaborando una declaración entre el PSE-EE y el PNV, y son partidarios de esperar a la misma.

Zabaleta andreak (EH Bildu) lehenengo eta behin eskertu egin du testu hau, bizikidetza berri baterako lehen hazia dela uste duelako; konfiantza ematen duen keinu bat dela uste du. Esan du gainera, Urretxun bi biktima daudela, eta horrez gain beste biktima batzuk ere badaudela (torturatuak, bahituak, …), ahaztu behar ez direnak, baina une berezi honetan bereiztu egiten dituela, hain zuzen ere bi urtemuga daudelako, Jose Mª Etxaniz “Potros” eta German Gonzalezen heriotzak.

La Sra. Zabaleta (EH Bildu), en primer lugar agradece este texto porque cree que es la primera semilla para una nueva convivencia, opina que es un gesto que da confianza. Sigue diciendo que en Urretxu, efectivamente, hay dos víctimas, y después hay otras víctimas (torturados, secuestrados…..), que no hay que olvidar, pero que separa en este momento especial por tratarse de fechas en las que se producen dos aniversarios, las muertes de

Esan du gainera, denon artean bizikidetza berri bat sortu nahiko luketela, modu diskretu batean lan egiteko, mina mina dela ahaztu gabe, eta ibilbide honetan herrietan egiten diren jarduketak gure herritarrengana iristen direla. Ibilbide honen baitan, uste du datozen lau urteotan hitz egingo dutela, topaguneak izango dituztela eta alderdikeriak desagertu egingo direla, izan ere momentu honetan bertan badituguIako adibide praktikoak beste udalerri batzuetan. Hortaz, bere iritzirako, badago aukera eta ezin dugu aprobetxatu gabe utzi.

Alkate jaunak, bozketa egin aurretik, talde politikoen jarrera eskertu nahi du, bereziki PSE-EE alderdiarena, gaia erretiratzea eskatu baitzuen, baina ez du hori onartu, bere iritzirako momentua delako herrian ibilbide propioa hasteko, nahiz eta Legebiltzarrean onartutako adierazpenak iristen direnean eztabaidatuko dituzten eta adostu ere bai, PSE-EE alderdiak eskatzen duen bezala monolito bat eraikita edo beste moduren batera, baina bai behintzat denok harro sentiarazteko zerbait.

Ondoren, gaia botoetara eraman da, eta aldeko botoa eman dute Alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH BIldu), Etxaniz (EH BIldu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu), Otegi (EH Bildu), y La Rosa (Irabazi) zinegotziek (11 boto aldeko); bestalde, aurkako botoa eman dute Martin (PSE-EE) eta Nieves (PSE-EE) zinegotziek (2

Jose Mª Etxaniz “Potros” y de German Gonzalez. Añade que les gustaría crear, entre todos, una nueva convivencia para trabajar de forma discreta, sin olvidar que el dolor es dolor y que las actuaciones que en este caminar se hacen en los municipios llegan a nuestros concidudadanos. Piensa que en estos futuros cuatro años de andadura hablarán, tendrán puntos de encuentro, y los partidismos desaparecerán, ya que en este momento ya tenemos ejemplos prácticos de esto en otros municipios. Es por lo que cree que tenemos posibilidad y que no hay que desaprovecharla.

El Sr. Alcalde, antes de proceder a la votación, quiere agradecer la postura de los grupos políticos, especialmente la del PSE-EE que solicitó la retirada del punto, solicitud que no ha aceptado, por cuanto que cree que es el momento de iniciar un camino propio en el municipio, a pesar de que cuando lleguen declaraciones aprobadas en el seno del Parlamento las tratarán e incluso consensuarán, no sabe si erigiendo un monolito como demanda el PSE-EE o de otra forma, pero sí algo de lo que todos se sientan orgullosos.

Seguidamente se somete el asunto a votación, y con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los concejales Sr@s. Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH BIldu), Etxaniz (EH BIldu), Badiola (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu), Otegi (EH Bildu), y La Rosa (Irabazi) {11 votos a favor}, y los votos en contra de los concejales Sr@s,

boto aurka); horrenbestez, onartu egin da HERRIKO EREMUAN BIKTIMAK AITORTZEKO MEMORIA JARDUKETAK BULTZATZEKO URRETXUKO UDALAK EMANGO DUEN LAGUNTZAREN INGURUKO ADIERAZPENA; testua hitzez hitz erabaki honen azalpen-zatian jasota geratu da.

**9.- Mozioa: fracking**

Alkate jaunak azaldu duenez, urriaren 27an egindako Bozeramaileen Batzordean tratatutako mozioa da hau; bertan, aurkeztutako testua egokitzeko aukera aztertzea proposatu zuen EAJ/PNV taldeak. Esan du gainera ados egongo liratekeela beste herri batzuetan, Zumarragan bezala, aurkeztutako testuarekin, non egokitzapen txiki bat egin den.

Jarraian, EH Bilduko bozeramaile Zabaleta andreari eman dio hitza, mozioa irakur dezan.

Zabaleta andreak aditzera eman du ez dagoela eragozpenik alkate jaunak aipatu duen testuarekin, eta ondoren mozioaren irakurketa egin du:

***Urretxuko EH BILDUk Urretxuko Udaleko Osoko Bilkurari aurkezten dion mozioa apurketa hidaulikoari buruz.***

*Euskal Herrian hidrokarburoak bilatzeko saiakera anitz egon izan dira. Gure lurraldeak hidrokarburoak aurkitu izan diren beste batzuekin dituen antzekotasunak direla eta petrolio-konpainientzat desiragarri bilakatu da Euskal herria. Emaizta ezberdinak egon badira ere, urte askotan zehar egon diren hamarnaka*

Martín (PSE-EE) y Nieves (PSE-EE) {2 votos en contra}, se aprueba la DECLARACIÓN EN TORNO A LA CONTRIBUCION DEL AYUNTAMIENTO DE URRETXU AL IMPULSO DE ACTUACIONES MEMORIALES Y DE RECONOCIMIENTO A LAS VICTIMAS EN EL AMBITO LOCAL, cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este acuerdo.

**9.- Moción fracking**

El Sr. Alcalde expone que se trata de una moción que ha sido tratada en la Junta de Portavoces celebrada el pasado 27 de octubre, en la que por EAJ-PNV se planteó estudiar una posible adecuación del texto presentado. Sigue diciendo que estarían de acuerdo con el texto presentado en otros municipios como Zumarraga, en la que se realizar una pequeña adecuación.
Seguidamente da la palabra a la portavoz de EH Bildu, Sra. Zabaleta, al objeto de que proceda con la moción.

La Sra. Zabaleta indica no haber inconveniente con el texto señalado por el Sr. Alcalde y a continuación procede a dar lectura de la moción:

***Moción que presenta EH BILDU de Urretxu al Pleno del Ayuntamiento de Urretxu sobre la fracturación hidráulica***

*En Euskal Herria se han realizado numerosos ensayos para la búsqueda de hidrocarburos. Como consecuencia de la semejanza de nuestra tierra con otros lugares donde se han encontrado hidrocarburos, Euskal Herria se ha convertido en un lugar deseado para las compañías petrolíferas. Aunque se han*

saiakerek arrakasta eskasa izan dute.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzen haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketan garatua izan da.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du. Horren froga nabariena Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A. (SHESA), %100ean diru publikoarekin dabilen enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarbueroen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai ere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunenha bada ere, orain arte EAE-n emandako beste 11 baimen daude (Ebro A,E,D,Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-ren zati handi bat hartzen dute: Araban %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

Urretxuko Udalerria eskatuta eta emateko tramitean dauden Sustraia eta Landarre

producido diferentes resultados, las decenas de pruebas realizadas durante muchos años han tenido escaso éxito.

A pesar de todo, a consecuencia de una nueva tendencia de buscar gas por el mundo mediante nuevos métodos, nuestra tierra se ha convertido de nuevo en una zona prioritaria. La diferencia, en este caso, consiste en una combinación entre la perforación horizontal y la fracturación hidráulica en diversas etapas. Esta técnica es conocida como fracking y ha sido desarrollada en América del Norte.

El Gobierno Vasco ha apostado a favor de este sistema. Prueba evidente de ello es que la Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. (SHESA), financiada al 100% con dinero público, ha sido la impulsora de las autorizaciones de investigación de hidrocarburos concedidas en nuestro territorio. No es la única empresa interesada, pero sí la que abarca con sus autorizaciones la mayor parte del territorio.

Este proyecto comenzó en 2.005, con diversas solicitudes de autorización, y la primera de ellas fue concedida en 2.006. Aunque la autorización más conocida es la llamada Enara, existen en la Comunidad Autónoma de Euskadi otras 11 autorizaciones (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis y Saia) y otras 6 solicitadas y en trámite de concesión (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre). Todas ellas abarcan una gran parte de la Comunidad Autónoma de Euskadi: 88% de Araba, 78% de Bizkaia y alrededor de un 40% de Gipuzkoa.

El municipio de Urretxu queda dentro del territorio que abarcan las autorizaciones

Urretxuko udala

*baimenek hartzen duten lurraldearen barne geratzen da. Sustraia baimenak Urretxuko mendebaldeko eremu txiki bat hartzen duen bitartean Landarre baimenak du eragin handiena udalerrian.*

*Orain arte teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, edateko urraen kutsadura, airearen kutsadira, mugimendu sismikoen agerpena, lurraren okupazio altua eta honen hondtazea edota putzuen inguruan bizi diren biztnleengan osasuna razoak kasu. Enpresa sustatzaileek kasurik hoberenetan, eragina jasan dutenei kalte-ordainak eman dizkiete, lege arau-hausteen aurrean isunak ordaindu dituzte edo zisterna bidez ur edangarria eramana dute ur eskuragarria kutsatu duiten lurraldeetara.*

*Hainbat dokumentuk bermatzen dituzte kezka hauek, osasunean eta ingurumenean frackingarekin ondorio latzak agerian jartzen dituzten ikerketa zientifikoetatik hasita, beraien eremuetan teknika hau debekatu dituzten lurralde eta estatuetaraino. Azken honen adibide aipagarri izan diateke Frantziar estatua, bere lurraldean haustura hidraulikoa legez debekatu duena. Nabarmentzekoa da gaur egun, bere arriskuak direla medio, teknika honen inguruan sortu den eztabaida handia.*

*Guzti honen aurrean aurtengo ekainean Eusko Lehebiltzarrak haustura hidarulikoaren teknika erabiltzea debekatzen duen legea onartuta, teknika honen aurkako borrokan aurrerapauso handi bat eman da erkidego mailan. Ala ere, lege honen aurkako helegiteek berau bertan behera uzteko dagoen arriskua ikusirik mozio honen helburua da udalerri honen mugen barruan teknika onen aurkako jarrera erakustea*

*Sustraia y Landarre, solicitadas y en trámite de concesión. Mientras que la autorización Sustraia abarca un pequeño espacio al oeste de Urretxu, la autorización Landarre tiene la mayor repercusión en este municipio.*

*En zonas donde hasta ahora se han utilizado estas técnicas se han producido diversos problemas: contaminación del agua, contaminación del aire, movimientos sísmicos, alta ocupación del terreno y su destrucción, y problemas de salud para los/las habitantes que viven alrededor de los pozos. Las empresas promotoras, en el mejor de los casos, han concedido indemnizaciones a los afectados, han pagado multas ante infracciones de la ley o han llevado agua potable en cisternas a las tierras donde han contaminado el agua.*

*Existen documentos que certifican esta preocupación, empezando por investigaciones científicas que ponen de manifiesto las graves consecuencias del fracking en la salud y el medio ambiente, hasta los territorios y estados que han prohibido esta técnica en sus tierras. Un ejemplo de esto último puede ser el estado francés, quien ha prohibido por ley la fracturación hidráulica. Es de destacar, por sus riesgos, el gran debate generado hoy en día entorno a esta técnica.*

*Ante todo ello, aprobada en junio de este año por el Parlamento Vasco la ley que prohíbe la utilización de la técnica de la fracturación hidráulica, se ha dado un gran paso adelante a nivel de comunidad en la lucha contra esta técnica. Aún y todo, visto el riesgo existente de que dicha ley quede suspendida por los recursos presentados contra la misma, el objetivo de esta moción es mostrar una*

*eta debeku honi bultzada ematea.*

*Honen guztiagatik, Urretxuko Udalbatzari aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadi:*

1. *Urretxuko Udalbatzak Urretxuko udalerrian Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoak edo betse edozeinek eskatu dituen ikerketa eta ustiaketa baimenak bertan behera uztea eskatzen du.*
2. *Urretxuko Udalbatzak Urretxuko Udal gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako jarrera aktiboa har dezala, Urretxu "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz*
3. *Fracking-ak dituen ondorio lazgarriak herritarrei jakinaraztea..*

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Martin jaunak (PSE-EE) aditzera eman du lehen eta orain fracking-aren aurkako jarrera izan dutela, eta beraz, mozioaren aldeko botoa emango dutela.

Gaia botoetara eraman da, eta aho batez fracking-aren aurkako mozioa onartu da; horren testua hitzez hitz erabaki honen azalpen-zatian jasota geratu da.

**10.- Mozioa: Askapena**

Gai honi hasiera eman aurretik, Martin eta Nieves PSE-EE taldeko zinegotziek alde egin dute batzar aretotik, auzitegiko bidean dauden gaiak izanik, ez dituztela eztabaidatuko argudiatuz.

*actitud contraria a dicha técnica dentro de los límites del municipio y dar un impulso a su prohibición.*

*Por todo ello, presentamos al Pleno del Ayuntamiento de Urretxu esta propuesta de acuerdo, para su debate y aprobación:*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de Urretxu solicita que queden suspendidas todas las autorizaciones de investigación y explotación solicitadas en el municipio de Urretxu por la empresa púbica Hidrocarburos de Euskadi y cualquier otra.*

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de Urretxu solicita al Gobierno Municipal para que tome una postura activa contra el fracking, designando a Urretxu como "Municipio sin fracking".*

*3.- Comunicar a la ciudadanía los graves efectos del fracking.*

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. Martín (PSE-EE) manifiesta que, tanto antes como ahora, se han posicionado contra el fracking, por lo que votarán a favor de la moción.

Sometido el asunto a votación, por unanimidad se aprueba la moción contra el fracking cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este acuerdo.

**10.- Moción Askapena**

Antes de iniciar este punto, los concejales del PSE-EE, Sr@s Martín y Nieves, se ausentan del salón de Plenos, argumentando que tratándose de asuntos que están en vía judicial no van a tratar los mismos.

Urretxuko udala

Alkate jaunak azaldu duenez, Bozeramaileen Batzordean testu alternatiboa aukeratu zen; Zabaleta andreari eman dio hitza, eta honek mozioa irakurri du:

***URRETXUKO UDALEKO UDAL TALDEEN ADIERAZPENA ASKAPENAREN AURKAKO ZIGOR BIDEKO AUZIAREN EPAIKETAREN HASIERAREN AURREAN***

*Prozesu judizial honek gogora ekartzen ditu 18/98 sumarioaren eta Euskaldunon Egunkariari edo Udalbiltzari buruzko sumarioaren garaiak. Prozesu hauek ez zuten sekula hasi behar ezta martxan jarri ere, oinarri juridiko penalik ez zegoelako eta hasieran eta garapenean helburu eta oinarri politiko argia izan zutelako. Prozesu hauek justiziaz aparteko irizpideetan oinarritu ziren, besteak beste alde terroristako kidetza edo kolaborazio kontzeptuaren gainditzea, horretarako inolako oinarririk edo eta frogarik izan gabe. Prozesu hauetan auziperatuei ETAren militante izatea edo talde horrekin kolaboratzea egotzi zieten, lege barruan egiten zituzten jarduera kulturalak, kazetaritza lanak edo lan politikoak ETAren agindupean egiten zituztela argudiatuta. Hau dena egin zen PPren gobernua Alderdien Legea eta ondorengo ilegalizazio prozesuak egituratzera eraman zuen filosofia nagusitu zen testuinguru politikoan. Orain haren jarraipena ikus nahi dute Askapena ilegalizatzearekin (Askapeña, Herriak aske eta SL Elkar truke).*

*Urte batzuk beranduago, historia berbera*

El Sr. Alcalde expone que en Junta de Portavoces se adoptó un texto alternativo, y da la palabra a la Sra. Zabaleta quien procede a dar lectura del mismo:

***DECLARACIÓN DE LOS GRUPOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE URRETXU ANTE EL COMIENZO DEL JUICIO DEL PROCESO JUDICIAL PENAL CONTRA ASKAPENA***

*Este proceso judicial recuerda la época del sumario 18/98, el sumario Euskaldunon Egunkaria o el de Udalbiltza. Unos procesos que nunca debieron haberse iniciado e instruido por su absoluta falta de fundamentos jurídico-penales y que tuvieron, en su formación y desenvolvimiento, un claro sesgo e inspiración políticas. Unos procesos que se enmarcaron en criterios extrajurídicos tales como el desbordamiento y expansión del concepto de pertenencia o de colaboración con organización terrorista sin base fáctica o prueba alguna. Unos procesos en los que los encausados resultaban acusados de militancia o colaboración con ETA, bajo el único argumento de la vinculación de sus legales y legítimas actividades culturales, periodísticas o políticas a las órdenes y a las posiciones emanadas de ETA. Todo ello en un contexto político que venía presidido por la filosofía que llevó al gobierno del PP, a articular la Ley de Partidos y los subsiguientes procesos de ilegalización. Que ahora quieren ver su continuidad en la ilegalización de Askapena (Askapeña, Herriak aske y SL Elkar truke).*

*La historia, años después, se repite. Y,*

Urretxuko udala

*errepikatu da. Eta, gainera, epaiketa bestelako testuinguru batean garatuko da, hau da, gaurko egoerak planteatzen dituen zailtasun eta konplexutasunen gainetik ere, bake eta normalizazio prozesua Euskal Herriko erakunde politiko eta sozial guztiek onartzen duten egoeran.*

*Arrazoi horiek direla eta auzibidezko prozesu hau hasteak bidean atzera egitea suposatzen du eta giroa gaiztotzen duen elementua da euskal gizartea normalizazio politiko osa lortzeko prozesuan ari den une honetan*

*Gure ustetan, epaiketa honi gutxieneko eta funtsezko oinarri juridikoa falta zaio. Beraz, ez zen sekula hasi behar edo, bere kasuan, kausak eta prozedurak artxibatuta egon beharko zuten, artxibatze honek justiziaren prestigio eta agintea berreskuratzen lagunduko zuelako, Euskal Herrian bake eta normalizazio prozesuari aurrera egiten laguntzeaz gain.*

*Arestian esandakoagatik, behean sinatzen dugun Urretxuko Udaleko Udal Taldeok:*

*Gure gaitzespenik sendoena adierazten diogu sekula hasi beharko ez zen prozesu honi, eta auziperatu diren pertsona guztiak errugabe jotzeko erabaki judizialaren bidez berehala amaitzea exijitzen dugu*

Irakurketa eginda, eta gaia botoetara eramanda, bilduta dauden kideek aho batez onartu dute aurkeztutako mozioa; testua hitzez hitz erabaki honen azalpen-zatian jasota geratu

*además el juicio se va a desarrollar en un contexto absolutamente distinto, en el cual, pese a las dificultades y complejidad, el proceso de paz y normalización está asumido por todas las organizaciones políticas y sociales de Euskal Herria.*

*Estas razones determinan que el inicio de este proceso judicial sea un factor regresivo, un elemento perturbador en estos momentos en los que la sociedad vasca camina en la senda de la normalización política.*

*Consideramos que el juicio resulta carente de la más mínima y elemental base jurídica, por lo que nunca debió iniciarse o, en su caso, debió sobreseerse la causa y archivarse el procedimiento de tal manera que su sobreseimiento y archivo hubieran contribuido a la recuperación de la autoridad y a la reintegración del prestigio de la justicia, además de coadyuvar al avance del proceso de paz y de normalización política de Euskal Herria.*

*Por todo lo anterior, los Grupos Municipales del Ayuntamiento de Urretxu abajo firmantes:*

*Expresamos nuestro más absoluto rechazo a este proceso que nunca debió iniciarse y exigimos culmine inmediatamente con la decisión judicial de absolución de todos los encausados*

Finalizada la lectura, y sometido el asunto a votación, por unanimidad de los presentes, se aprueba la moción presentada cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este

da.

**11.- Mozioa: Stop utzarazpenak**

21:10 direnean, PSE-EEko Martín eta Nieves zinegotziak sartu dira berriro batzarraldira.

Alkate jaunak aditzera eman du, urriaren 27ko Bozeramaileen Batzordean erabaki bezala, gai hau erretiratu egin dela gai-zerrendatik, 2012ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran Udal honek onartu zuelako etxeak utzaraztearen inguruko mozio bat, udal talde politiko guztien artean adostua. Oraingo mozioa aurkeztu duten kolektiboei, Kaleratzeak Stop Desahucios eta IRPH Stop kolektiboei, jakinaraziko zaie gorabehera hori.

**12.- Erregu eta galderak.**

Martín jaunak (PSE-EE) eskatu du hurrengoetan informazioa lehenago bidaltzeko, gaiak landu ahal izateko.

Eta besterik gabe, amaiera eman zaio batzarrari, iluntzeko bederatziak eta hogeita bost minutu direnean, eta horren guztiaren akta jaso da, eta bildutako guztiek sinatu dute, fede-emaile naizen honekin batera.

acuerdo.

**11.- Moción Stop Desahucios**

Siendo 21:10 horas se incoporaran a la sesión los ediles del PSE-EE Sr@s Martín y Nieves.

El Sr. Alcalde expone que, tal y como se acordó en Junta de Portavoces del 27 de octubre, el presente punto queda retirado del orden del día porque ya en la sesión plenaria celebrada el 29 de noviembre de 2012, este Ayuntamiento aprobó una moción consensuada entre todos los grupos municipales relativa a los desahucios. Este extremo será comunicado a los colectivos que han presentado la misma, Kaleratzeak Stop Desahucios e IRPH Stop.

**12.- Ruegos y Preguntas**

El Sr. Martín (PSE-EE) solicita que en próximas ocasiones la información se remita con más antelación al objeto de poder trabajarla.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la sesión a las veintiuna horas veinticinco minutos, de todo lo cual se extiende la presente Acta que firman conmigo todos los asistentes, y de lo que doy fe.